

DATORRENA

AEBei buruzko nire ezezagutza
ozeanikoa da IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

«Que se vayan»-etik polizia
eredu berrira, nola? RAMON SOLA > 11

2016ko azaroaren 5a | X. urtea • 492. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



RICARDO MARTIN,
GIZARTE NARRATZAILEA

> 12 Ricardo MARTIN | PHOTO CARTE



Donald Trump, komediaren aingeru apokaliptikoa 04

Kamerun: 79 hildako eragin zituen tren istripuaren alde ilunak 07

Ricardo Martin, jendearen artean nahasten zen argazkilaria 12

KunArte, berrikuntza artistikorako zentroa Gasteizen 18

E.lkarrizketa: Ander Solozabal, Ez Dok Amaituko kidea 22

In fraganti: Idoia Rodriguez Mondragon 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** AEBei buruzko nire ezezagutza ozeanikoa da

10 **Oier Gorosabel:** Gerriko mina

11 **Ramon Sola:** «Que se vayan»-etik polizia eredu berrira, nola?

16 **Unai Iturriaga**

20 **Gaizka Amondarain:** Fenomeno atmosferikoak

21 **Garazi Goia:** 80 urte eta gero, telebista

27 **Saioa Iraola:** Ziaboga hartzeko garaia da

27 **Joxean Agirre:** Xostakovitx

30 **Iratxe Esnaola:** Burujabetza teknologikoa



{ datorrena } Iñaki Soto

AEBei buruzko nire ezezagutza ozeanikoa da

Globalizazioaren ondorioz gure aroan eta tes-
tuinguru geopolitikoan AEBetako inperialis-
moak izandako eragin soziopolitiko eta kul-
tural itzela dela medio, hara nola
antiinperialismoak gure hezkuntza politiko-
an duen indarragatik, orokorrean AEBei bu-
ruz dakiguna baino askoz ere gehiago dakigula uste iza-
teko joera dugu.

Egia da gure eguneroko bizitzaren dekoratua Hollywo-
odeko film batetik hartua dela, gure marko kulturalaren
parte handi bat AEBetako telebista eta unibertsitateetako
joeren bertsio pobrea dela, gure printzipio geopolitiko
orokorrak harekiko erreakzioan eraiki ditugula, gure
erreferentzia ugari handik datozela, zuzenean edo zehar-
ka. Fikzio horrek are zailagoa egiten du benetako ezagu-
tza. Izan ere, ezagutzen ez ditugunetatik hobekien ezagu-
tzen dugun herrialdea AEBak direla egia bada ere,
beraiengatik kolonizatuta
gaudela egia bada ere –era
batean edo bestean, batzuk
gutxiago eta beste batzuk
gehiago–, ezagutza horren
hein handi bat fikziozkoa da,
bere adierarik zorrotzenez.

Egitate hori are argiagoa
izan da AEBetako hauteskun-
deei buruz hausnartzen hasi
garenean. Niri behintzat hala
gertatu zait. Hauteskundeei
begira AEBetako ezkeraren
erreferentziak bilatzen hasi
naizenean ezagutzen ez
nuen aniztasunarekin egin
dut topo. Autore, aktibista eta kazetari gehienak aurretik
ezagutzen nituen, beren liburuak edo artikulua iraku-
rriak nituen, beren pentsamendua ezagutzen nuen, gu-
txiago edo gehiago. Hori, jakina, ez da orain aldatu. Inte-
resgarriena, ordea, eztabaida taktiko-estrategikoa izan
da. Bai demokraten primarioetan, Sanders-Clinton
lehian, bai hauteskunde orokorretan, Clinton-Trump
lehian. Adibidez, demokraten barruko lehian feminis-
moari buruzko eztabaida oso interesgarria izan zen. “The
Nation”-en adibidez bi jarrerak azaldu ziren. Clintonen
alde, lehendabizikoz emakume bat lehendakaria izateak
ekarriko lukeen guztiagatik, eta Sandersen alde, gizona
izan arren bere posizio eta jokabideak bere arerioarenak
baino feministagoak direlakoan [hemen adibide bat:
goo.gl/rS7ssG]. Berdin gertatu zen beltzen eta bestelako
gutxiengoan edo zapaldutako komunitateen inguruan

[goo.gl/rofoch]. Auziok eta boto taktikoa mintzagai har-
tuta, duela gutxi hil den Tom Haydenen jarrerak harritu
ninduen, primarioetan Clintonen alde egingo zuela azal-
tzen baitzuen bere azken artikuluetako batean
[goo.gl/OaeJba]. Hayden ezker estatubatuarren sinbo-
loetako bat da, kazetaria eta aktibista, irlandar errepubli-
kanoen laguntzailea luzaroan. Azken horren harira, azal-
penak eman behar izan zituen kanpainan. Zergatik eta
1995ean Gerry Adamsen aldeko afari batean Trump ber-
tan zegoelako! [Bere azalpena hemen: goo.gl/yRZMKU].

Trumpek irabazteko aukeraren aurrean, Noam
Chomskyk *Lesser Evil Voting*-ari buruz idatzi du, John Ha-
llerekin batera [goo.gl/deQLGn], Clinton bozkatzea nola-
bait justifikatuz. Besteak beste, “Counterpunch”-en aurre
egin diete. Obama kritikoki bada ere babestu zutenean ez
bezala, Clintonen aurka gupidagabe ari dira, zentzuz gai-
nera [hona adibide bat: goo.gl/cKtsgO].

Angela Davis parafraseatuz, «ni ez naiz
hangoa banintz zer egingo nukeen
jakiteko bezain nartzisista», ez behintzat
zalantzak azaldu gabe eta han bizi direnen
aukerak errazkeriaz epaituz

Angela Davisek ez du Hillary babestu nahi izan, baina
Trumpen aurka egitea lehentasuna dela esanez Clinto-
nen alde bozkatuko duela iradoki du, birritan azken aste-
otan [goo.gl/ISO5Ly]. Horrek eztabaida piztu du AEBetako
ezkertiar eta beltz komunitateetan. “The Root” aldizka-
rian bertan Kirsten West Savalik honela biltzen zuen is-
kanbila eta bere iritzia, iraultzaile horri zor zaion erres-
petua eskatuz [goo.gl/WR5axI]. Halere, West Savalik
«nartzisista» hitza erabiltzeagatik Davis kritikatzeko du.
Niri, ordea, hitz egokia iruditzen zait. Izan ere, bera para-
fraseatuz, «ni ez naiz hangoa banintz zer egingo nukeen
jakiteko bezain nartzisista», ez behintzat zalantzak azal-
du gabe, han bizi direnen argudioak eta iritzia kontuan
hartu gabe eta urrutitik jendearen aukerak errazkeriaz
epaituz. Nire ezezagutza hain da eta ozeanikoa, uste du-
danaren kontra, agian, Trumpek irabaz dezakeela. •

DONALD TRUMP, KOMEDIAREN AINGERU APOKALIPTIKOA

Irati Jimenez

Aurtengo AEBetako hauteskunde kanpaina ez da historiara pasako bere maila politikoagatik, baina ezin ukatu komediarako izan duen gaitasuna. Komedia egileak bapo ibili dira Donald Trumpen bueltan. Azkenean, baina, txistea negargarria gerta daiteke, ezkutaketan ibili gabe eta astapito bat zela agerian utzita, Etxe Zuriaren ateetara iritsi baita Trump.

Trump Dorrea, 2015eko ekainaren 16a. Abizen bereko milioiduna eskailera mekanikoan agertu zen eta Ameriketako Estatu Batuetako presidente izatera iritsi nahi zuela adierazi zuen, antigramatikaren historiara pasako den hitzaldiarekin. Denetarik zeukan, sasizientzia, misoginia, xenofobia eta politikagintzari buruzko ezagutza falta ikusgarria. Inork ez zuen uste ego erraldoiaren eta esku txikien hautagaia Etxe Zuriaren ateetan ikusiko genuenik; hala, AEBetako komikoek aste batzuetarako txisteak prestatu zituzten, Jeb Bush hautagai izendatuko zuen kanpainaren ateetan zeudelakoan. Urte eta erdi geroago, ordea, Bush gaztea txiste bihurtu da, txistea zirudien gizonak lortu du presidentegai izatea, eta telebistan komikoen belaunaldi berri bat bere kontra altxatu da. Donald Trump botoi nuklearretatik hurbil egon litekeen honetan, komikoen belaunaldi berri batek lehertuko bagara barrez izan dadila aldarrikatu du.

JON STEWARTEN ORGASMOA

«Eman diezaiogun hasiera berri bat askatasunari, ez dadin Lurraren azaletik gobernu hau desagertu, herri-tik, herriak eta herriarentzako sorturiko gobernu hau». Gerra zibilaren bukaeran, Abraham Lincolnek hitzaldi gogoangarria egin zuen, Gettysburgheko gudu zelaian. 152 urte geroago eta beste hamasei hautagai atzean utzi ondoren, Lincoln alderdiak aukeratu duen hautagaiak beste era bateko erretorika erabili zuen bere lehen hitzaldirako, eztabaida publikoaren aro berri bat zabalduz.

Hedabideak etorkin mexikarrei buruz esan zuenarekin geratu ziren –«drogak ekartzen dituzte. Krimenak ekartzen dituzte. Bortxatzaileak dira. Eta pentsatzen dut batzuk pertsona onak izango direla»–, baina politikarien kontra ere jo zuen –«ergelak dira»–, japoniarren kontra –«milioika auto bidaltzen dizkigute eta noiz ikusi duzu Tokion Chevrolet bat?»– edota txinatarren


kontra –«txikitu egiten gaituzte»–. Joskerarik gabeko hitzaldia izan zen, kontrae-sanez betea, surrealista.

Momentu hartan, AEBetako komedia politikoaren erreferentzia nagusiari sei aste geratzen zitzaizkion Comedy Central telebista kateko saioa uzteko. Donald Trumpen hitzaldia entzun ondoren, Jon Stewartek, “komedia liberalaren aita santuak”, eskerrak eman zizkion, «nire azken asteak nire asterik onenak egitearren». Hogei urte zeramatzan “The Daily Show” saioa egiten eta ezin zuen imajinatu Trump larrutzea baino bukaera hoberik. Bere kolaboratzaile guztiakin batera, talde-orgasmo bat eta guzti antzestu zuen, aurrean zituenen barreei aurre hartuta. Orduan inork ezin zuen imajinatu, ezta Stewartek berak ere, “The Apprentice” *reality* arrakastatsuen protagonista Teddy Roosvelten alderdiko hautagai bihurtuko zenik. Are gutxiago “trumpe-raz” baino hitz egiten ez dakien gezurti patologiko eta megalomano batek benetako aukera izango zuenik AEBetako 45.

presidente bihurtzeko. Jon Stewarten azken aste haiek txiste gogoangarri asko eman zituzten eta profezia ilun bat, Trumpek lor zezakeela beste hautagai guztiek inoiz lortu ez dutena: ezkutaketan ibili gabe eta astapito bat zela agerian utzita hauteskundeak irabaztea.

TRUMP EPELAK ESATEN, ETA, TERMINATOR, EPEL

Posible ote da? Inkesta ia guztiek ezetz diote, baina Hillary Clintonen garaipenak egina zirudien bakoitzean aurkariak distantziak laburtzea lortu du. Urrian, “Access Hollywood” saioan egindako grabazio zahar bat argitaratu zenean “trum-pismoarenak” egina zirudien. Emakumeak alutik «heldu» egiten dituela zioen, baimenik gabe, «izar bat zarenean edozer egin dezakezulako». “The late show with Stephen Colbert” saioaren aurkezleak “misoginiaren El Dorado” aurkitu berri zela aldarrikatu zuen eta bere aukera guztiak hantxe bukatzen zirela esan zion hautagaiari, «munduko gozoki guztiakin ere ez duzu esaldi horren kiratsa ahotik garbi-



Donald Trumpek espero gabeko bidea egin du kanpaina honetan. Komedia egileei sekulako jokoa eman die bai, baina Etxe Zuriaren ateetaraino ere iritsi da.

Jeff KOWALSKY | AFP

tuko, Donald». Beste askok berdin pentsatu zuten eta alderdikideak eurak Trumpen kontra azaldu ziren. Arnold Schwarzenegger Kaliforniako gobernadore ohiak «herria alderdiaren aurretik jartzeko unea» zela aldarrikatu zuen eta telebista bidezko bigarren eztabaidan Hillary Clintonek aurkariari eskurik ez ematea erabaki zuen. «Normala» esan zuen Stephen Colbertek, «orain badaki esku hori non egon den».

Trump hautagaia ez zen hil, oster. Inkesta gehienetan atzean ageri da –azken egunotan egoera iraultzea lortzen ari dela badirudi ere–, baina, Brexitarekin gertatu zenaren ostean, inor ez da ausartzen Clinton presidente izango dela zalantza izpirik gabe baieztatzen. Hillary ez da batere hautagai maitatua eta badira oraindik botoa erabaki ez duten herritarrak ere. Bigarren eztabaidan, esate baterako, emakume musulman bat agertu zen, botoa nori eman ez zekiela, nahiz eta Trevor Noah komedianteak esan zuen moduan zaila den halakorik imajinatzea, Donald Trumpek musulmanei ateak itxi-ko dizkiela agindu duenean, «imajinatu marihuana erretzaile bat zer egin ez dakiena, pizza eskatu edo poliziar deitu».

KOMIKO BERRIAK PLAZAN

Emakume zuri eta gizon beltz baten semea, Trevor Noah iaz iritsi zen Hegoafrikatik AEBetara, Jon Stewarten lekua betetzera. Stewart erreferentea da satira politikoaren generoan eta hasieran kostatu egin zitzaion ardura horren zama sorbaldatik kentzea. Baina kanpainaren gaitasun komikoak bere lekua aurkitzen lagundu dio eta azkenean “trumpismoaren” kontrako militante komikoen brigadista bilakatu da. Izan ere, antz handiegia hartzen dio errepublikanoen hautagaiari bere kontinentearen parterik txarrekin, «Afrikako diktadore batek bezala pentsatzen du, Nigeriako printze baten moduan egiten du iruzur, egiptiar buruzagi batek bezala mehatxatzen ditu aurkariak eta etengabe botatzen du pozoia ahotik, ebola balu bezala».

Trump oraindik hautagaia bilakatzeko lehian zegoenean, Trevor Noahren programan bere kanpainaren edukiak ezin hobeto laburbildu zituzten, hautagaiak gai bakoitzari emandako denbora aztertuta. «Denboraren %58 ze aberatsa den esateko baliatzen du, %10 zarata arraroak egiteko, %12 era guztietako talde etnikoak iraintzeko, %16 Jeb Bush kritikatzeko, %4 kanpainako gauza normalak egiteko». Trevor Noah izan da alderdi errepublikanoaren kontra gehien ausartu den komikoetako bat. «Errepublikanoek uste dute



Hillary Clinton kanpainako une batean, duela egun batzuk. Inor ez da ausartzen Clinton presidente izango dela zalantza izpirik gabe baieztatzen. Ez da batere hautagai maitatua eta badira oraindik botoa erabaki gabe duten herritarrak. Jewel SAMAD | AFP

Trumpen kanpaina gai bakoitzari emandako denboraren arabera: «%58 ze aberatsa den esateko, %10 zarata arraroak egiteko, %12 era guztietako talde etnikoak iraintzeko, %16 Jeb Bush kritikatzeko, %4 kanpainako gauza normaletarako»

Ez da falta kanpainan barre gehiegi egin dela esaten duenik ere. Obamaren ustez, Trumpek horrenbesteko igoera izan badu inkestetan, askok serio hartu ez eta ikuskizun bilakatu dutelako izan da. Baina Trump har liteke serio?

Trump ez dela haientzako hautagai ego-
kia, baina Trumpek bezala Amerika pikuta
doala uste dute, politikatik ez dato-
zen negoziogizonak maite dituzte eta
apustu egingo nuke Trumpen esaldi xe-
nofoboak bukatzeko gai ere badirela». Azaroaren 8an Hillary Clintonek irabaz-
ten ez badu ezingo da esan Trevor Noahk
ez duenik bere lana egin. Azken batean,
politika komedia bihurtu bada, zergatik
ez da komedia politika bihurtuko?

BAINA BALIO OTE DU EZERTARAKO?

Kanpainan zehar, AEBetako komediaren erregeek bihotza zatituta izan dute. Badakite, adibidez, Trumpen jarraitzaileek ez dietela kasurik egingo. Hautagaiak berak xaxatu ditu medio liberalen konspirazioaren kontra eta kritikak lapiko paranoiko horren su bilakatu dituzte, “Mundua vs Trump” eskema indartzen duten neurrian. “Real Talk” saioko Bill Maher komikoak esan duen moduan Trumpen jarraitzaileak daturik gabeko burbuilan bizi dira, errealtatetik kanpo. Obama ez zela AEBetan jaio esan zienean sinetsi egin zuten eta kontrakoa esan

duenean –Hillary Clintoni errua botata gainera–, berriz sinetsi diote.

Maherren ustez jarraitzaile horiek «ez dira errukiz begiratu beharko genituzkeen pobre desesperatuak, urtean 75.000 dolar irabazten dituzten gizonak dira, arratsaldea tabernan ematen dutenak gin-tonic bat hartuta eta mundua gorroto dutenak euren zakilak jada ez duelako lehen bezala erantzuten». Hainbat eta hainbat emakume Trumpen sexu erasoak salatzen hasi zirenean, Maherrena izan zen eguneko txistea: «Esan egia, hemen zaudeten guztion artean nori ez dio Donald Trumpek hankarteak ukitu?».

SERIO DEMONIO

Ez da falta kanpainan barre gehiegi egin dela esaten duenik ere. Obama presidentearen ustez, Trumpek horrenbesteko igoera izan badu inkestetan, askok serio hartu ez eta ikuskizun bilakatu dutelako izan da. Baina har liteke serio bere eskuen neurriekin obsesionatuta dagoen hautagai bat? Ez da txantxa. Duela 25 urte Graydon Carter kazetariak “Spy” aldizkarian Trump «atzamar txikidun pertsona bal-

dar» gisa definitu zuen eta ordutik tarteka jasotzen ditu Trumpek berak bidalitako argazkiak. Denetan eskuak boligrafoz inguratuta eta ohar batekin agira dira: «TAMAINA NORMALEKOAK, IKUSTEN?». Egia da lanpostu serioa nahi duen gizonari gutxieneko seriotasun bat eskatu beharko geniokeela, baina hain ego hauskorrara opari tentagarriegia da komikoentzat.

“Last Week Tonight” saioarekin Emmy saria irabazi duen John Oliverrek, adibidez, ia ez du aste bakarra pasatzen utzi «hamster itxurako esku txiki-txiki» horien lepotik txisteren bat egin gabe. Trumpen kanpaina ekitaldi, tuit eta hitzaldi gehienak ere kritikatu ditu, tartean azkenetako bat, New Yorkeko artzapezpiak deituta urtero egiten den karitatezko afaria. Errepublikanoa ez zen batere fin ibili Hillary Clintonen lepotik barre egiterakoan eta bertan bildutakoek kontrako oihuren bat ere bota zioten. Porrot ederra, Oliverren ustez, katolikoak publiko bikaina zirelako, «platera hiru mila dolarretan ordaindu behar zen, Manhattaneko hotel garesti batean bildu ziren, denak ziren gizon zuriak eta gehienak sexu eskandaluetan zikinduta ibili dira».

KOMIKOAK VS TRUMP

NBCko komedianta ezagunenetako bat, bere izena daraman “Late night with Seth Meyers” saioko aurkezlea, izan da komikoen sentimendu kontraesankorrek definitzen gehien asmatu dutenetakoa. «Kanpaina hau karruselean ibiltzea bezalakoa izan da. Hasieran entretenigarria da, baina une batetik aurrera botagura ematen dizu». Botagurarekin edo gabe, Meyersek ere ondo jakin du hautagaia- ren munizioari erantzuten. Errepublikanoak, adibidez, askotan esan du ez dituela inkestak sinesten bere mitinetan jende asko dagoelako. «Donald, jende asko leku batean biltzea presidente izateko aski baltz, gure hurrengo presidentea Ikea litzateke, larunbat arratsalde».

Trump hautagaiak bere burua Lincolnekin konparatu zuenean ez zuen aipatu ere egin esklabotzarekin bukatu zuela. Meyersen erantzuna? «Zer gertatzen zaitzu, ez duzu gogoratzen zer egin zuen edo nahiago duzu ez aipatu zure boto-emaleek ez diotelako barkatu?».

Stephen Colbert eta Trevor Noahrentzat bezala; Seth Meyersentzat ere hauxe izan da programa baten ardura berak bakarrik hartzeko lehen aukera eta baliatu egin du, komediaren dantzarako ez baitago halako ikuskizun mediatiko eta politiko batek ematen duena bezalakoa musikarik. Meyersen eskola izan zen “Saturday Night Live” mitikoak, adibidez, aspaldiko



audientziarik onenak lortu ditu aurtren Trump eta Clintonen eztabaiden parodiekin, bereziki Alec Baldwin egindako Trumpen imitazio zoragarriekin. Trump berari ez zaizkio gehiegi gustatu –programa emititzeari uzteko eskatu zuen Twitter sare sozialean–, baina, halakoetan, azkurak zauria baino ez du sinalatzen. “Jimmy Kimmel Live” saioko izen bereko aurkezleak esan zuen moduan, «orain iruditzen zait Donald Trump Alec Baldwin egiten duen Donald Trumpen imitazioa imitatzen ari dela».

KOMEDIA BUKATZERA DOA

«Trumpek galdu egingo ditu hauteskundeak. Galtzen badu galdu egingo duelako eta irabazten badu berea baino etxe txikiago batera mugitu beharko duelako. Eta beltzen auzune batean, gainera». Kalleko txistea da, baina Trumpek gehien gorroto duen ideia nabarmentzen du: galtzea. Nartzizista misogino batentzat halako garaipen batetik hain hurbil egoitea eta azken unean emakume baten aurrean galtzea kolpe gogorregia izan liteke, eta, hirugarren debatean esan zuen moduan, azken unera arte ez du esango emaitza onartuko duen ala ez. Iruzurra salatu du, behin eta berriz, batere frogarik gabe eta horixe salatu lezake azaroaren 8an ere. Horixe egin zuen “The Apprentice” izeneko bere *reality*-ak “The Amazing Race” aurkariaren kontra Emmy saria galdu zuenean. Stephen Colbertek esan moduan «baliteke orain ere gauza berbera egitea, ‘The Amazing Racist’ bezala ere galtzaile geratzen bada».

Eta garaipena onartuko balu ere, errepublikanoek ez dute Trump erditik erraz kenduko. Antza denez, telebistako komedianteei horrenbeste eman dien gizonaren asmoa telebistan lekua egitea izan liteke, Trump TV proiektua martxan jarrita. Txarra litzateke errepublikanoentzat, ultraeskuinari hauspoa ematen jarraituko lukeelako eta errepublikanoek horra lerratu beharra balute oso zaila izango litzatekeelako alderdiarentzat horrenbeste behar dituen boto-emaleak erakartzea. Latinoak, beltzak edo musulmanak gutxiengoa ziren lehen baina demografia aldatzen ari da eta proiektu kontserbadoreak ere aldatu egin beharko du iraun nahi badu. Horixe da agian kanpainak agerian jarri duen azken ironia. Eskuinak eman ziola hauspoa Obamaren kontra edozer esateko prest zen gizonari eta emandako aterpean hazitako belekumea arazo bilakatu zaiola orain. Ez zuela presidente beltza nahi eta orain beste kolore bateko arriskua daukala begi aurrean. *Orange is the new black*, lagunok!

KAMERUN

79 hildako eragin zituen tren istripu larriak makina bat galdera utzi ditu

📁 JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Jaunde hiriburutik Doualara zihoan trena errailetik irten zen Esekan urriaren 21 ean. Trena gainezka zihoan bezperako euriteen eraginez bi hirien arteko errepidea moztuta zegoela eta zortzi bagoi erantsi zizkiotelako. Hondamendiak makina bat galdera eragin ditu, kasu gehienetan erantzunik gabe geratzen ari direnak. Azpiegituren inguruko aurrera begirako hausnarketak egitera ere behartzen du gertatutakoak, Afrikaren populazioa ikaragarri hazten ari baita, eta, aldi berean, gero eta afrikar gehiago bizi baitira hirietan.

Urriaren 21 ean Jaunde hiriburutik Douala itsasertzeko hirira zihoan trena Eseka herrian errailetik irten egin zen. 79 hildako eta 600 zauritutik gora utzi zituen istripuak.

Tren hondamendiak makina bat galdera eragin ditu Kamerungo herritarren artean, kasu gehienetan erantzunik gabe geratzen ari direnak. Gainera, azpiegituren inguruko aurrera begirako hausnarketak egitera behartzen du. Izan ere, Afrikaren populazioa ikaragarri hazten ari da (horrela jarraituko du mende osoan adituen arabera), eta, aldi berean, gero eta afrikar gehiago hirietan, urbanizatutako eremuetan, bizi dira.

Zein izan da tren-linea kudeatzearen ardura duen Camrail konpainiaren erantzukizuna? Eta Kamerunen garrantzia gehiago eman zaion kontua: zer egiten ari dira agintariak biktimei zein senideei laguntzeko?

Paul Biya presidenteak «iker-keta sakona» egiteko agindu du, istripuaren arrazoiak argitzeko. Telebista publikoan jakinarazi zuen agintariak zertan ari den. Camrail konpainiak berak bere ikerketa propioa iragarri du, eta Esekako Auzitegiak ere beste horrenbeste egingo du.

ABIADURA BIZIEGIA?

Bollore izeneko frantses holdin-geko iturriek adierazi dute abiadura biziegian zihoala trena istripua izan zuenean. Eric Melet Bollore Africa Railwayseko presidenteak esan du ibilgailuaren

abiadura 80-90 kilometro ordukoa zela errailetik irten zenean, askoz ere mantoago (40-50 kilometro orduko) joan behar zuen puntu batean.

Esekako bertako iturri batek bertsio hori indartu zuen: tren gidariak berak esan omen zien geltokikoei herrira iristen ari zenean bizkorregi zihoala trena eta ezin zuela mantsotu. Zama gehiegi al zeraman trenak? Hi-


potesi hori da garrantzitsuena oraingoz.

Trenean 1.300 pertsona inguru zihoazen errailetik irten zenean, inoiz baino herritar eta karga gehiago, bezperako eurizaparraden eraginez Kamerungo bi hiriak lotzen dituen errepidea moztuta baitzegoen. Zortzi bagoi erantsi zizkioten betiko konboiari eta hori gehiegi izan zen bestela ere oso kalte-

tuta dagoen trenbide zaharkituarentzat.

Nork hartu zuen erabakia? Gobernuak ala Comrail konpainiak? Oposizioko alderdi batzuek Edgar Alain Mebe Ngo'o Garraio ministroaren dimisioa exijitu dute. Berak esan du ministroari dagokiola zerbitzuaren ildo nagusiak ezartzea, baina erabakiak konpainiak hartu behar dituela. Hasiera batean

Afrikako herrialde gehienetan trenbide sarea egoera penagarrian dago, errepideari eman baitzaio lehentasuna eta ez baita nahikoa inbertitu instalazioak gaurkotuta edukitzeko. Irudian ikus daiteke nola geratu zen trenbidea Esekan, urriaren 21eko istripuaren ondoren. AFP



ondo iruditu zitzaion bagoi gehiago eranstea, errepidea erabili ezinik geratu zirenei konponbide bat eskaintzen zitzaielako.

Biya presidentek Gobernuaren jarduera ondo iruditu zitzaiola nabarmendu zuen kameren aurrean. Ingeniarien lana, Garraio Ministerioarena, Lan Publikoetarako Ministerioarena eta lanean aritu ziren zerbitzu guztiena goraipatu zituen agintariak. Kamerunen askok salatu zuten Biyaren jarrera, lehen ordu haietan ez baitzen istripua izan zen lekura agertu.

Camrail konpainiak ez ditu kazetarien galderak erantzun nahi, nahikoa xehetasun eman duelakoan. Konpainia horren

jabe den Bolloreko presidentek onartu du bagoi kopurua bikoiztu egin zutela, bidaiari kopuruak gora egin zuelako, baina Meletek erantsi zuen ez zutela baimendutako kopurua inoiz gainditu. Berak bere bertsioari eusten dio: trena bizkorregi zihoan, eta badirudi kontakizun hori bat datorrela gidariak eskainitakoarekin.

ERREPIDEA ALA FUTBOL ESTADIOAK?

Douala eta Jaunde hiriak lotzen dituen RN3 errepidea oso garrantzitsua da Kamerunentzat, batez ere herrialdeak 2019an hartuko duen Afrikako Futbol Txapelketari begira. Baina euri asko egiten duen eremuan da goenez, eta babestutako gunek

Kamerungo bi hiri nagusiak lotzen dituzten errepidea eta trenbidea oso garrantzitsuak dira herrialdean negozio bat aurrera ateratzen saiatzen diren herritarrentzat. Irudian, istriputik bizirik ateratako herritar batzuk.

AFP

zeharkatzen dituelako, arazo ugari sortzen dira.

Joshua Osih SDF Fronte Sozial Demokrata oposizioko taldeko presidenteordeak Gobernuari egurra emateko erabili zuen tragedia: «Zer da garrantzitsuago, RN3 errepidea behingoz behar den moduan egitea, ala astebetez baino erabiliko ez diren futbol estadio berriak egiteko 840 milioi euro inguru gastatzea?».

RN3 errepidea autopista bihurtzeko lanak egitea 2014an erabaki zen. 750 milioi euroko aurrekontua: China EximBank-ek diruaren %85 ipiniko du eta, gainerakoa, Kamerungo Estatuak.

Baina lan horiek oso mantso

doaz, azken bolada honetan bizkortu egin badituzte ere, eta RN3 zaharra da oraindik leku batetik bestera joateko aukera bakarra. Euri asko egiten duenean errepidea erabili ezinik geratzen dira herritarrak, ordea. Iazko abenduan orain gertatutako gauza bera (zubi bat eraistea) gertatu zen Mapubin eta Nkankanzocken.

ORDU GEHIEGI LAGUNTZAREN ZAIN

Zenbat denbora egon ziren laguntzarik gabe istripuaren biktimak? Joshua Osih politikaria berehala iritsi zen eta, berak hedabideei adierazi dienez, erreskate taldeak ailegatu baino lehen pertsona asko hil ziren. Horieta z zenbat salbatu-

«GOBERNUAREN KUDEAKETA DESEGOKIAREN EMAITZA DA HONDAMENDIA»

Joshua Osih SDF Fronte Sozial Demokrata oposizioko taldeko presidenteordea Jaunde hiriburuan zen eguerdi tragiko hartan. Berak ere Doualara joan behar zuen, baina, RN3 errepidea moztuta zegoenez, bestelako bide alternatiboetatik heltzen saiatzea erabaki zuen; Esekatik oso gertu zela, istripuaren berri izan zuen. Horri esker tragedia gertatu eta hamabost minutura iritsi zen: «Herritarrak korrika ikusi nituen, puntu batetik bestera zihoazela. Ikuskizun apokaliptikoa zirudien. Esekako agintariak ari ziren lehen laguntza antolatzen. Lehen zaurituak Esekako ospitalera eraman zituzten *pick-up* ibilgailuetan jarrita. Sekulako nahasmena zen nagusi. Bizirik atera zirenak oso gaizki zeuden, zer egin ez zekitela, erabat geldirik».

Diputatuak esplikatu du Esekako agintariak berehala bertaratu zirela. «Hiri txikia izanik, agintarien egoitza eta erietxea geltokitik gertu daude. Beraiek eskaini zuten lehen laguntza, bertaratu ziren herritarren eta bizirik atera ziren batzuen laguntzarekin. Baina kanpoko laguntza unitateak oso berandu iritsi ziren».

Bere iritziz, Gobernuak ez du sinesgarritasunik hondamendia ikertzeko, bera ere zipriztinduta baitago. Oshik gogorarazi du Kamerunen abian jarritako beste ikerketa ofizial batzuek ez dutela oraindik fruitu egokirik eman. Horregatik beharrezkotzat jotzen du ikerketa independente bat abian jartzea.

Oposizioko politikariak galdetzen du ea non dauden RN3 errepidea hobetzeko mahaiaren gainean jarritako milioiak. Aldi berean, Gobernuari eskatzen dio argitzeko zein baldintzatan eman zaion zerbitzua Comrail konpainiari; pribatizazioaren letra txikiak zer esaten duen azaltzeko, alegia. Bere irakurketaren arabera, Biya presidenteari dagokio ardura nagusia, 1982ko azaroan agintea eskuratu zuenetik karguan jarraitu beste lehentasunik ez baitu izan: «Ez da ezer egin herritar xumeen alde, kamerundarren ongizatearen alde. Estatuaren buruan zilegitasuna duen zuzendaritza bat behar dugu, eta, horretarako, hauteskunde aske, sinesgarri eta gardenak egin behar dira».



Esekako bertako iturri batek indartu zuen trena azkarregi zihoan bertsioa: gidariak berak adierazi omen zien geltokikoei herrira iristen ari zenean bizkorregi zihoala trena eta ezin zuela mantsotu

Kamerungo bi hiriak lotzen dituen errepidea moztuta zegoen. Zortzi bagoi erantsi zizkioten betiko konboiari eta hori gehiegi izan zen bestela ere oso kaltetuta dagoen trenbide zaharkituarentzat



ko ziren erreskate taldeak lehenago iritsiz gero? Ez dago jakiterik. «Istripuak gertatu gertatzen dira. Baina erreskate zerbitzuen lana berraztertu beharrean gaude», esan zuen Osih diputatuak telebista kameraren aurrean.

Lekukoek esplikatu dutenez, orduak pasa ziren trena errailetik irten zenetik erreskate taldeak ailegatu ziren arte, eta gainera oso baliabide gutxirekin iritsi ziren. Berehala bertaratu ziren Esekako herritarrek zauritu asko eramane zituzten beren auto eta motozikletatan erietxetara. Ospitaletatik Armadaren laguntzarekin irten zen laguntza espezializatuagoak lau ordu behar izan zituen Esekara iristeko. Patrick Goldmann kazetaria trenean zihoan eta berak jakinarazi du 18.30ak arte ez zuela inolako anbulantziarik ikusi, Esekako herritarren ibilgailu prekarioak besterik ez.

URTEAN 200 MILIOI DOLAR

Zauritu gehienak Douala itsasertzeko hiriburua ekonomikora eramane zituzten. Urriaren 23an, hiriko bost erietxek istripuko 317 zauritu hartzen zituzten. Jaunde hiriburuko geltokian, berriz, laguntza zerbitzua antolatu zuten Gobernuak eta Comrail konpainiak. Biktimen senideak erietxetara eramane lagundu zuten, psikologoak bestelako laguntza emane saiatzen ziren bitartean. Biya presidenteak esan du erietxeta ako gastu guztiak Gobernuak berak ordainduko dituela.

Baina Kamerunek behar duen trenbide sareak askoz ere diru gehiago eskatzen du. Analistek egindako kalkuluen arabera, urtean 200 milioi dolar inguru inbertitu beharko lirarteke Afrikako trenbide sareari gaurkotuta eusteko. Hamabost urteko atzerapenari (beste kontinenteekiko) aurre egiteko, lehen hamar urteetan 500 milioi dolar beharko lirarteke, eta hortik aurrera goian aipatutako 200 milioiak. Baina zerbitzuaren kontzesioa duten konpainiek 35 milioi dolar mugitzen dituzte urtean (batez besteko datua da), eta horientzat ezinezko da horrenbesteko inbertsioa egitea.

KOLONIZATZAILEEN INTERESEN ARABERA DISEINATUTAKO IBILBIDEAK

Rafael Gomez-Jordana Moyak Afrikako azpiegituren inguruan 2014an egin zuen txostenak nabarmentzen du kontinenteak arlo horretan duen atzerapena, garapen orekatua lortzeko garaian azpiegiturek duten garrantzia gogorarazteaz gain. «Oraindik galdetu behar dugu nola den posible itsasertzik gabeko hoge herrialde dituen Afrika bezalako kontinente bat, bere trenbide sarearen gaitasuna eta fidagarritasuna bermatzeko gauza ez izatea», galdetzen zuen egileak orain bi urte. Erantzuna da lehentasuna errepideari eman zitzaiola eta horregatik gaur egun garraio guztien %85 inguru kamioi eta autoetan egiten direla. Politika horren ondorio da ere Afrikako trenbide sarea oso mugatua izatea, garapen bidean munduko beste kontinenteetan dauden herrialdeetako baino askoz ere ahulagoa. Mundu osoan milioi batetik gora kilometro trenbide badaude, Afrikan 54.000 kilometro baino ez daude, munduko %5 gutxi gorabehera. Kanada, Errusia, India eta AEBak bezalako herriek trenbide kilometro gehiago dituzte Afrika osoak baino.

Gainera, egungo trenbide gehienak kolonizatzaileek beraien interesen arabera diseinatu eta egindakoak dira: portutik, atera beharreko baliabide naturalak zeuden lekura. Ibilbideok ez zituzten lotzen kontinente herrialdeak beraien artean. Ehun urte baino gehiago izaten dituzte instalazioek kasu gehienetan, eta epe horretan izan diren gatazka eta matxinadek sarea kaltetu izan dute. Hegoafrika litzateke salbuespena, gainerako herrialdeetan trenbide sarea egoera penagarrian baitago. Gainera, azpiegitura hori gaur egun ez dago tren modernoak hartzeko moduan eta inbertsio handiak egin beharko lirarteke ibilgailu modernoek hartu ahal izateko.

Saharaz hegoaldeko trenbide nagusiak





Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta eta osteopata

Gerriko mina

Irakurleen artean oso gutxi izango zarete gerriko mina ezagutzen ez duzuenok. Lan esparruan, esate baterako, lunbalgia da baja arrazoi nagusia, eta esan dezakegu denoi interesatzen zaigula egoe-ra horri aurre egitea: langileari, bistan da, baina baita enpresari ere, arrazoi horregatik dirua galtzen duelako. Zer esanik ez makroekonomiari, gerriko minak suposatzen dituen galera orokorrak zorabiatzeko modukoak izaten direlako.

Zer gertatzen zaio, bada, gerri buelta gaixoari, hainbesteko sufrimendu eta dolore jasan behar izateko? Pentsa ezazue bizkarrezurrean: kanaberaren egitura du, bata bestearen gainean ezarritako ornoez eginiko dorrea da. Dorre altuetan bezala, bizkarrezurrean ere beheko mailak karga handiagoari eusten diote goiko mailak baino. Horretara, dorrearen barrenak lodiagoak, sendoagoak diren bezala, bizkarrezurreko beheko ornoak (orno lunbarrak) handiagoak dira dortsalak edo zerbikalak baino. Pisu handiagoari eutsi behar diotelako. Gauza bera gertatzen da ornoen artean aurki ditzakegun disko, lotailu, giltzadura eta muskuluekin; gerrian dena da handiagoa, sendoagoa.

Bestalde, bizkarrezurrean zehar beste desberdintasun batzuk ere badaude: gorputzeko toki batzuetan errai oso garrantzitsuak daude, eta bizkarrezurrak haiek babesteko nolabaiteko armadura garatu du eboluzioan zehar. Garunaren inguruan burezurra dago; bihotzaren eta biriken inguruan, saihsak; eta, sexu organoen inguruan, pelbisa. Babes horiek bizkarrezurreko parte horien mugimendua mugatzen dute, salbu eta bi gunetan: bizkarrezur zerbikalean eta bizkarrezur lunbarran. Ondorioz guneon mugikortasuna bizkarrezurreko beste zatiena baino askoz ere handiagoa da; eta, gauza jakina denez, asko mugitzen denak hondatzeko aukera handiagoa izaten du.

Izan ere, lepoa zein gerria asko mugitzen diren arren, arazoak askoz ere ugariagoak dira gerrian. Zergatia kargan dago: bizkarrezur zerbikalak buruaren pisua bakarrik jasan behar du, eta, lunbarrak, berriz, gorputz osoaren erdia. Goian esan dugu gerriko orno eta egiturak handiagoak direla; horrek, zati batean, pisu handiagoari eustea ahalbidetzen du, baina, gure kontsultan egunero ikusten dugunez, hori ez da nahikoa izaten eta gerrian mina errazago etortzen da bizkarrezurreko beste zatietan baino.

Puntu honetan lehenago esandako zenbait gauza gogoratu beharra dugu. Bat: gorputza mugitzeko egina dago; lanbide estatikoez (dendan, tornuan, autoan...) bizkarrezurreko mina errazago ekartzen dute. Bi: gerriak eta izterrak (aldaka edo mokorren bitartez) erabat lotuta daude, eta izterrak malgu mantentzeak gerriko minaren intzidentzia jaisten du. Hiru: diagnostiko teknikek (erresonantziak, tomografiak eta beste) positibo faltsu asko ematen dute. Adibidez: minik ez duen jende askok disko hernia du; beraz, gerriko mina duen pertsona baten erresonantzian disko hernia agertzen bada, ez du esan nahi minaren motiboa horixe denik.

Gauza guztion gainetik, mezu argi bat nagusitzen da: aktibitate fisikoak, orokorrean, mesede egiten dio gerriko minari, eta gelditasunak, kalte. Hori frogatzen duen ebidentzia zientifiko sendoa dago, eta beharbada horixe da, masajea eta beste terapia pasiboen gainetik, fisioterapia zentro batean gerriko minaren kontra lehenetsi beharko genukeen baliabiderik garrantzitsuenak. •

www.abante.eus



Aktibitate fisikoak, oro har, mesede egiten dio gerriari.

Lander FDEZ DE ARROYABE | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

«Que se vayan»-etik polizia eredu berrira, nola?

Gatazkaren ondorio" deitzen den askotariko kaxoi nahasi horretatik bost urteotan gutxien atera den gaia, duda izpirik gabe, desmilitarizazioarena da. Konponbiderik gabe segitzen badu ere, preso eta iheslarien auzia guztiz presente izan da une oro, armagabetzearena ere bai, biktimen alorrean aurrerapauso nabariak eman dira, bai eta epaiketa politikoak behingoz amaitzeko hainbat urrats ere... Aldiz, Aietera heldu artean indarrean zen polizia ereduak lehenengo lepotik du burua gaur egun ere, eta ez da apenas nabarmendu horrek ez bururik ez leporik ez hankarik ez duela. Orain, gainera, era oker eta ankerrean azaleratu da arazoa, Altsasuko liskarraren harira. Kontu hau itxuraz hain premiazkoa ez zen neurrian, alboratuta geratu izana ulergarritzat ere har daiteke. Baina bost urteotan izan diren zenbait gertaerari begiratuta, ez dirudi inondik bigarren mailako gaia denik. Iñigo Cabacas hil zuen pilotakada, esaterako, ez zen eskopetatik aterako gaztea herriko taberna baten aldamenean izan ez balitz, *Ugarteko* beraren hitzek argi erakutsi zigutenez. Gernikan herri harresia altxatzeko beharrik izan ez balitz, 94 urteko Julia Lanaz ez zuten ertzainek kolpatuko. Altsasukoa ordu txikietako errieta arrunta baino ez zen izango. Eta Elhadji Ndiaye senegaldarraren heriotza ere beste modu batera aztertuko zuten askok eta askok, Polizia espainolaren bertsio sinestezinaren atzean lerrokatu beharrean. Eta abar...

Honen guztiaren atzean dauden jokamoldeak amaitzeko trabak eta ezintasunak begi bistan direlarik, polizia eta soldadu kopuruari eustiaz gain, bere posizio politikoa indartuz joan da Estatua arlo zehatz honetan. Ikus ditzagun, esaterako, Nafarroan gertatzen denaren inguruko hainbat detaile: kuartelik itxi ez eta Fiteron berri bat ere ireki dute inolako beharrik gabe; eskandalu eta erantzunik gabeko parada militarra ospatu berri da Iruñeko Antoniutti parkean (zalaparta handia sortu zen toki bertsuan 1996an PSNko Javier Otano gobernuburu zela egindakoan); nafar eskoletan polizia erakustaldiak gero eta ohikoagoak dira; Bardeako tiro eremua 2028ra arte luzatzeko hitzarmena indarrean da (eta 2001ean eta, apalxeago, 2008an hitzarmen horiek berritzearen aurka

izandako herri mobilizazioen arrastorik ez dugu ikusi)... Desmilitarizazioari, Estatuko segurtasun indarren Espainiaratzeari, polizia eredu berriari... nola ekin oraindik definitu gabe dago Euskal Herrian, baina Estatuak argi duela ezin uka. Bere jarrera trinkotu eta gogortu du, eta ez da maila bereko indar metaketarik izan beste aldean.

Txaranga doinuz lagunduriko "*Que se vayan, se vayan, se vayan...*" kantuak biltzen zuen herri aldarria 70eko hamarkadan. "*Perros guardianes del orden y la ley*", abestu zitzaien geroago, punk-rock estiloan. Pankartari eutsita "Alde hemendik!" leloa nagusituko zen 90eko hamarkadan. Baina ez da aparteko berritasunik gertatu 2011tik hona. Eta hala ere, auziari heldu beharko zaio goiz ala berandu, eta bere osotasunean hartuta: Cabacas edota Angel Berrueta gogoan izanda, baina baita Elhadji Ndiaye ere, "Alde hemendik!" hori osatuz, egokituz, gaurkotuz. Izan ere, polizia eredu berri batez hitz egitea arrotza iru-

Cabacasen edo Ndiayeren kasuek auzi hau ere premiazkoa dela adierazten dute. Eta honetan ere eraginkor jokatu beharko da, ondorioak gainditzeko bidean ezer ez baita aurreikusi zen bezala gertatzen ari

di liteke Sakana aldean, baina ez da "Alde hemendik!" Fiteron oihukatzea baino arrotzagoa...

Gatazkak utzitako ondorioak gainditzeko orduan, ezer ez da gertatzen ari aurreikusi bezala. Aieteko egunetan inork ez zuen uste ETaren armagabetzeak Euskal Herrian zuela grabitate zentroa, presoen auzia Estrasburgotik arin zitekeela eta auzia betiko konpontzeko espetze arloko eskuduntzak hartzea erabakigarria zela, epaiketa politikoek Auzitegi Nazionallean akordio bidez izango zutela bukaera, bi aldeetako biktimek ordezkari politikoek baino ausartago jokatu zutela elkarbizitzaren alde... Desmilitarizaziora iristeko ere, bide zuzena baino, zeharkako hurbilketak joratzeko ordua da, egungo egoera ez baita ulergarria inongo ikuspuntutik: ez politikoki, ez ekonomikoki, ez administrazioen eskumenen ikuspegitik, ez segurtasun arloko benetako beharrei dagokionez.... •

RICARDO MARTIN, JENDEAREN ARTEAN NAHASTEN ZEN ARGAZKILARIA




Oihane Larretxea de la Granja

Donostiako kaleak erretratatu zituen Ricardo Martin argazkilariak, baita jai herrikoiak, auto lasterketak edota Rifeko Gerra bera ere besteak beste. Jendearen artean nahastea gustuko zuen, bertatik irudi ikusgarriak lortzeko. Martinen bildumako onena batu du Juanxo Egañak Kubo Kutxak inauguratu berri duen erakusketarako.

Hiriko kaleak zeharkatuz, bereziki Kontxako pasealekua eta Askatasunaren Hiribidea, auzoetako festetara gerturatzuz eta jendearen artean nahastuz. Hala lortzen zituen Ricardo Martin (1882-1936) argazkilariak irudi ederrak, zuri-beltzean. Aristokrazia erretratatzeko, baina herritarrak beti izan zituen oso presente, haiek dira bere argazkietako protagonista nagusiak, pertsonak. Jantzi dotoreak eta zapata finak, herri kirolez gozatzen ari diren ikusleak, hipodromoa, Atotxako estadia, arraunlariak, itsasoan freskatzen ari diren emakumeak... egoera arruntenetan zen perfekzioa ikusteko gai eta hura jasotzen zuen, klik batez.

Donostiako Kubo Kutxak bere lana jasotzen duen erakusketa zabaldu zuen atzo, "Ricardo Martin. Argaz-

Dotore-dotore jantzitako bi emakume Kontxako hondartzan paseatzen, gainontzeko herritarren begiradapean. Alboan, Lasarte, Hernani eta Andoain batzen zituen auto lasterketa ospetsua.
Ricardo MARTIN | Photo Carte



kilaria eta ikuslea" izenarekin, horixe egingen zuelako, herritarren artean nahastu, ikusi, begiratu, eta irudia zuenean hura harrapatu. Urtarrilaren 22ra arte egongo da zabalik. Hura bisitatu eta harekin gozatzeko aukera aprobetxatu bitartean, Juanxo Egaña komisarioak eman dizkio GAUR8ri erakusketaren gakoak eta artistari buruzko xehetasunak.

Argazkilaritza dokumentala bezala deskribatzen du Martinena, fotokazetari-tzaren antza duena. «Argazki dokumentalak, Ricardok berak planteatu zuen bezala, aurrekaririk ez zuen Donostian. Ideiak oso argi zituen, hasiera-hasieratik badaki zer den egin behar duena. Hiria zeharkatzen du, bere kaleak, jaiak, eta mugitzen den guztia islatzen du, garrantzitsua deritzona. Txapelketak eta lasterketak, baina baita aristokraziaren lekukotzak ere», kontatu du Egañak.

Badajozeko herritxo batean jaioa, gazte etorri zen Gipuzkoako hiriburura. Familiako lagun baten bidez Urquijo banke-txean lana lortu zuen, baina ez zuen inoiz argazki kamera askatu. Hala, 1915ean, 33 urte zituela, ireki zuen Hondarribia kaleko 2. zenbakian bere estudioa: Photo Carte. Ordurako, ordea, ha-

maika lan eginak zituen, besteak beste, Realeko futbol taldearekin. Dendak erakusleioa zuen, eta bertan jartzen zituen ikusgai egindako argazki guztiak, jendea-ri saltzeko. Antza denez, denda igande goizetan zabalik izaten zen, eta jendea pilatu egiten zen erakusleio hartan aurreko egunetan gertatu eta argazkietan jasotako guztia ikusteko. «Berak ondo zekien zer zegoen Donostian. Kontxatik paseatu eta argazkiak ateratzen zituen. Ondoren txarteltxoak banatzen zituen 'Interesatzen bazaizkizu [irudiak], pasa zaitez dendatik' leloarekin», azaldu du Egañak.

Argazkien arrakastaz galdetuta, egunerokotasuna jasotzeko moduan egon daitekeela uste du erakusketaren komisarioak. «Ekitaldi batean egon eta ondoren argazkiak ikusi ahal izatea... argazkilaritza existitzen zen, baina hura neurri batean berria zen. Pentsa, oroitzapenak erosteko modu bat zen. Ezagutzera eman zen, eta ezagun egin zen», dio.

PHOTO CARTE ESTUDIOAREN OSPEA

Ricardo Martinen ospea Gipuzkoatik harago joan zen. 1914a zen, eta Sociedad de Prensa Gráfica elkarteak sortu zen, hainbat aldizkari grafikoren argitaletxea izan



zena. Nicolas Maria de Urgoiti enpresaburua izan zen bultzatzailea, eta hark beti izan zuen Martin alboan, irudiak behar zituen neurrian. Hala, bere izena momentuko albisteei lotuta agertu zen. Tes-tuinguru horretan, ulertzekoa da Photo Carte estudio-denda hiriko argazkigintza dokumentalaren erreferente bihurtu izana. *Belle époque* garaia puri-purian zela, joera ideologiko ezberdina zuten egunkariekin kolaboratzen hasi zen. Ezberdintasunak ezberdintasun, bere irudiak nahi zituzten paperezko hedabideek.

Europa une latzak igarotzen ari zen Lehen Mundu Gerra dela-eta. Kontinenteko aberatsek Monte-Carlo, Venezia eta Niza bezalako hirietatik ihes egin beharra izan zuten, eta bazuten nora joan: Donostiara. Bertako Kasinoaren garai oparoenak izan ziren, eta, Estatu frantseseko eta Belgikako hipodromoek gerraren ondorioz atekak itxi behar izan zituztenez, Donostiak berea irekitzea erabaki zuen 1916an, egun ezagutzen dugun berbera. Lehen zaldi lasterketon lekuko izan zen Martin. Hala, bere artxiboan arratsalde jendetsuon hamaika irudi topa daitezke.

Egañak erakusketarako prestatu duen liburuxkan azaldu duenez, hipodromoko

Erakusketaren promoziorako goiko irudia hautatu du Juantxo Egañak, lehen aldiz ikusi zuenean barrua kolpatu ziolako. Alboan, komisarioa bera, kutunak dituen irudietako batzuekin.

Ricardo MARTIN | Photo Carte
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Photo Carte dendak erakusleihoa zuen, eta bertan jartzen zituen Martinek ateratako irudiak. Igande goizetan irekita izaten zen eta jendea erakusleihorearen aurrean pilatzen zen aurreko egunetan gertatu zena irudion bidez ezagutzeko

Bertatik bertara jarraitu zuen Martinek Rifeko Gerra. Baina gertaera belikoak kontatzeak baino, bertan zegoen jendeak arduratzen zuen, pertsona haien bizitzak, sufrimenduak, gatazkaren alde humanoak



argazkiok «abentura berrietara» eraman zuten artista. 1923tik aurrera Lasarte, Hernani eta Andoainetik igarotzen zen automobilentzako nazioarteko lasterketa Europako garrantzitsuena bilakatu zen, Lyongoarekin batera. Bugatti, Delage eta Mercedes bezalako garaiko auto etxerik garrantzitsuenek ez zuten hitzorduarekin hutsik egiten. Eta, hurrengo orrialdean ikus daitekeenez, Martinek orduan ere jaso zuen historikoa zena: lasterketa autoak gidatu zituzten lehen emakumeen lekukotza utzi zuen.

Garai hartan oso zaila zena ere lortu zuen argazkilariak. Izan ere, Egañak na-

barmendu duenez, mugimendua izoztea oso zen zaila, auto batzuk 145 kilometro orduko abiadura hartzera ere ailegatzen baitziren. Martinek, baina, autoen bizkortasuna bikain jasotzen zuen Henri Lartigue argazkilariaren beraren estiloa gogoraraztea ere lortu zuen.

GERRAREN LEKUKO, AFRIKAN

«Ricardo Martinek gertutik jarraitu zuen Rifeko Gerra, baina gerraren garapena ez zitzaion bereziki interesatzen; gertaera belikoak kontatzeak baino, bertan zegoen jendeak arduratzen zuen, pertsona haien bizitzak, sufrimenduak, gatazkaren alde humanoak», baieztatu du Egañak. Afrikarako bidea hartu zuenean, Gabonak gerrara bidalitako gipuzkoarren artean igarotzea erabaki zuen. Ordurako, urteak zeramatzan Atotxako geltokian edo Pasaiako portuan senideen arteko azken agurrak eta besarkadak jasotzen. Alde batean gerrara zihoazenak; bestean etxean zain gelditzen zirenak. Une horretan ematen ziren sentimenduak jasotzea interesatzen zitzaion. Rifeko Gerran egindako argazkiak, besteak beste, «Mundo Gráfico» eta «La Estampa» aldizkarietan argitaratu zituen, Photo Carte izenaz.



“ABC” egunkariak, ordea, autorearen izen-abizenekin kaleratu zituen. Ez zen lehen aldia egunkari madrildarrak bere argazkiak erabiltzen zituela, eta lehen orria ere eman zioten, nahiz eta ebaki eta ukituekin izan.

Gerratik bueltan, eta erakusketan ikus daitekeenez, zaurituak tren geltokira ailegatzaren diren unea jaso zuen kameraz. Gertukoaren sufrimendua erretratatzeko saiatu zen, Egañak uste duenez. Kasino zaharrean edo Miramar jauregian atondu ziren ospitaleetako zauritu eta erizainak ikus daitezke irudietan. Gerraren aurka egon ziren manifestazioek ere bere arreta bereganatu zuten.

PERTSONAIA OSPETSUEN ARGAZKIAK

Biarritzen gertutasunak zerikusia zuen Donostiara etortzen zen jendearekin. Horri monarkia espainolaren eta Gobernu ordezkarien udako egonaldiak, *belle époque* garaia... erantsi behar zaizkio. Hala, Azorin, Sorolla, Pio Baroja eta Miguel Unamuno pasa ziren, besteak beste, Martinen kameraren aurretik. Orduan ospetarik ez zuen baina gerora famatu egin zen Josephine Baker charleston dantzaria ere erretratatu zuen. Bigarren Mundu Gerraren aurka gogor agertu zen Baker 1934an egin zen ospetsu “Zouzou” filmagatik.

Pisu astunen kategorian hiru aldiz Europako txapelduna izandako Paulino Uz-

kudun Errezilgo boxeolaria eta Charles Chaplin ere badira bildumaren parte. Argazki batek aktorea Txofreko zezen plazan erakusten du. «Adi eta erne egon zen Martin», Egañak kontatzen duenez, Donostiako ikusleak agurtu zituen unea harrrapatu eta argazkiak munduari bira eman baitzion. Lalana toreatzaileak antza, artistaren bisitarekin harrituta, belarria eman zion eta Chaplinek, esker ona agertzeko, zilarrezko zigarreta kutxatila bat oparitu zion.

MARTINEN ONDAREA, KUTXAREN FOTOTEKAN

Garaiak eta teknikak aldatuz zihoazen, baita argazkigintza ere. Horrekin guztia-ekin batera, baita Martin bera ere. Argazki kamera arinagoak atera ziren merkatura eta berrikuntzekin bat egin zuen

Martinek XX. mendearen hasierako emakumeak auto lasterketetan gidari, tabernetan aisialdiaz gozatzen, talde feministetan, bainujantzian... irudikatu zituen. Irudi askok ondoren frankismoak hautsi zuen irekiera iradokitzen dute

Aldizkari eta egunkari askok Martinen lana garaiko gertaera garrantzitsuez informatzeko baliatu zuten, baita aristokraziak eta espainiar gobernu agintariek Donostian ematen zituzten udako egonaldien berri emateko ere

Emakumeen parte hartzea gero eta handiagoa zen jarduera publikoetan XX. mendearen hastapenetan, eta horren lekuko izan zen argazkilaria. Gidariok horren erakusle dira. Alboan, Charles Chaplin Txofreko zezen plazan.
Ricardo MARTIN | Photo Carte


berak. Kazetaritza grafikoarekin interesatuta, Alemaniara jo zuen 1932an, telemetroa txertatuta zuen Leica II kamera eros- teko. Urte hartan bertan, “AS” kirol egunkariarekin hasi zen kolaboratzen.

Talentu eta gaitasun bereziaren jabe, asko zuen eskaintzeko oraindik, baina, tamalez, bi urte ondoren gaixotu eta esofago minbiziak jota zendu zen 1936ko maiatzean, gerra hasi baino bi hilabete lehenago. Negozioaren ardura Agustina Zugasti alargunak hartu zuen, Vicente semeak lekukoa hartu zion arte.

Zuten balioaz ohartuta, 1973an garaiko Aurrezki Kutxak bi funts erosi zituen: Ricardo Martinena eta Pascual Marinena. Egun, guztion gozamenerako, Kutxaren Fototekan milaka argazki kontsulta eta ikus daitezke. Orotara 40 funts eta 800 argazkilari inguru biltzen ditu.

Erakusketaren helburuaz, alegia, Ricardo Martinen lana erakustearen zergatiak galdetuta, Egañak ez du zalantzarik: argazkilaria izena berreskuratzea. Argazkilari modernoa izan zen, aitzindaria, ikuspuntu aurrerakoa izan zuena zentzu guztietan, bai negozioari zegokionez, baita artistikoki ere.

Erakusketa egiteko asmoa duela hiru urte piztu zitzaion. Geroztik lan eta lan aritu da. «Vicente semea ezagutzen nuen, baina bere oroitzapenak ez ziren oso argiak, txikia zela galdu zuelako aita.




Baina bere lana oso gertutik jarraitu dut, ikertu dut aldizkari eta egunkarietan, artxiboetan...».

Kubo Kutxan 110 argazki inguru ikus daitezke, eta oso zaila izan da, hain justu, agertuko zirenak hautatzea, 200.000 negatibo ikusi behar izan dituela kontuan hartuta. «Irudiak aukeratzeko garaian bere bizitza ehuntzen saiatu naiz. Argazkiak ikusiz eta ikusiz ezagutzen amaitzen duzu pertsonaia, ulertzerantz zara nolakoa zen, nola eta zergatik egiten zituen irudiak –kontatu du Egañak–. Eta azkenean, gertuko sentitzen duzu. Deskribatu beharko banu esango nuke oso humanoa zela, sentibera, bere inguruko jendeagatik kezkatzen zela».

Prozesua oso aberasgarria izan da, baina ez da Juntxo Egaña Kutxaren Fototekan barneratu den lehen aldia, 2012an “Focus” erakusketa egiteko beste hainbeste egin baitzuen. Gauza askok harritu dute komisarioa. Horien artean aipagarriena erakusketa iragartzeko hautatu duen argazkia. Bertan emakume bat ikusten da, itsasotik atera nahian, gabarroi batera igotzeko. «Ez nuen irudia ezagutzen eta lehen aldiz ikusi nuenean kolpatu egin ninduen. Indarra du, konposizioa izugarria da». Argazkien aukeraketa ez da mekanikoa, «sentsazioen bidez» egiten den prozesua baizik. Eta ikusleak, ziur, horietako asko sentituko ditu.

Josephine Baker charlestone dantzaria Donostian izan zen eta Martinek erretratatu egin zuen. Handik urte batzuetara ospe izugarria lortu zuen Bakerrek mundu guztian. Alboan, saskibaloia partida bat. Azpian, Rifeko Gerraren aurka Donostian egindako manifestazioetako bat. Irudian, Bulebarra ikus daiteke.
Ricardo MARTIN | Photo Carte






Unai
Iturriaga

iRRITZIA:

FRANCOIS HOLLANDEK
HAUTESKUNDEAK
IRABAZI ZITUENEAN
MORROI "ARRUNT" BATEN
ITXURA ZEUKALA
ESATEN ZEN.



INIGO URKULLURI BURUZ
ESAN OHI DA "MS-DOS"
SISTEMAK BAINO KOLORE
PALETA MURRITZAGOA DUELA
ETA "GRISA" DELA.



(EZ DIRUDI BAINA
BERA DA)

MARIANO RAJOYK
HAURREI IRAUNGITAKO
MENTAZKO GOXOKIAK
BANATZEN DIZKIEN
AGUREAREN "KARISMA"
EI DU.



ETA GU,
KLASE ERTAINEKO EZKERREKO ABERTZALEOK,
OSO ESPEZIALAK, KOLORETSUAK ETA
KARISMATIKOAK GARENEZ,
ZUBI BAT DUGUN ALDIRO,
GURE AUTOKARABANAK, FURGONETAK
ETA OROTARIKO IBILGAILU HIBRIDOAK PRESTATU,
ETA OPORRETARA JOATEN GARA,
BIDE BATEZ, GURE HERRIA BERAIEK
GOBERNA DEZATEN UTZIZ.



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ESPAZIO PUBLIKOETAN BELDUR IZATEARI BIZKARRA EMANDA

Asteon, Emakundek «Kalea nirea da?» izeneko ikerketa aurkeztu du, emakumeek espazio publikoetan izaten duten beldurraren gaineko lana. Inor gutxi harrituko zuen ikerlanaren ondorio nagusiak: kalean eraso bat jasateko beldurrak emakumeen askatasuna murrizten du. Neskek mutilek baino leku arriskutsuagotzat jotzen

baitute kalea. Halaxe baita; ez berez, baizik eta pentsamolde zahar bezain arriskugarri bati helduta segitzen dutenak beldur direlako. Ikerketa hori aurkeztu zuten egun berean, Leioan 14 urteko neska batek bezperan jasotako eraso sexuala salatu zuen jendetzak. Argazkiko lehen planoan, 14 urte inguruko zenbait neska ageri dira, bizkarrez. Euren aurpegiak ez agertzeko ote? Baliteke. Hala ere, sinesgarriagoa da, salaketa ekitaldian direnez, beldurrari bizkarra ematea erabaki dutela. Pentsamolde zaharkitu eta arriskugarri baten menpekoek beren boteretxo beldurgarria galtzeko beldurrez eragiten duten ikarari bizkarra ematea. Xabier Izaga Gonzalez

KUNARTE PROIEKTUA

Pantzart taldeak gaur aurkeztuko du «Kolorez kolore» ikuskizuna

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

KunArte berrikuntza artistikorako zentroa Teatro Paraiso konpainiak Gasteizko Abetxuko auzoan sortutako proiektua da, 1 eta 6 urte arteko haurrei bereziki zuzenduta dagoena. Gaur Pantzart taldeko kideek «Kolorez kolore» ikuskizuna estreinatuko dute bertan. Amaitzerakoan, haurrek artistekin batera tailer batean parte hartzeko aukera izango dute.

Koloreak dira Pantzart antzerki konpainiak gaur aurkeztuko duen lanaren protagonistak. «Kolorez kolore» du izena eta 3 eta 6 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Kveta Pacovska ilustratzailearen lan plastikoan oinarrituta, koloreen gaia jorratzen du. David Larrinagaren musika lagun, kolorezko etxe bat sortuko dute artistek, eta kolorezko etxe hori sortzeko txotxongiloak, itzalak, leihoak, kolorezko gurpilak eta Juan Kruz Igerabideren poesia erabiliko dituzte.

Horrez gain, Pantzart taldeak bere webgunean azaldu bezala, ilargia, barraskiloak, igelak eta hipopotamo bat ere agertuko dira gaur arratsaldean agertokian. Bi aktore arituko dira agertokian, poligonoak, koloreak, irudiak, pertsonaiak, abestiak, nahasketak baliatuz. Kolorezko ikuskizuna sortzeaz gain, testurak, formak, historiak eta soinuak eramango dituzte agertoki gainera. Eta haurrak ikuskizunaren parte izango dira: eraikitako etxean sartu ahal izango dira eta bertan antzezlanean ikusitakoa ukitu ahal izango dute. Pantzart konpainiako kideek sortutako mundu magikoan jolastu ahal izango dute.

Gaurko emanaldia Abetxukon izango da, Teatro Paraiso konpainiaren egoitzan. Izan ere, egunotan Pantzarteko kideak

betan ari dira lanean KunArte proiektuari esker. KunArte Teatro Paraisok bultzatutako berrikuntza artistikorako zentroa da, 1 eta 6 urte arteko haurrei eta beren inguruko helduei zuzenduta dagoena. Eta proiektuan parte hartzen duten sortzaileek egonaldi artistikoetan parte hartzen dute. Egonaldi artistiko horien bitartez, KunArteko arduradunek artistei laguntza eskaintzen diete, beraiek egindako proiektuak bultzatuz zuzendari-tzan sartu barik. «Beren jatorriz-

ko proiektuetan laguntza eta babesa ematen diegu, beren zalantzak arretaz entzuten ditugu eta zalantza horiei forma artistikoa ematen saiatzen gara. Publikoa-rekin topaketak ahalbidetzeko tresna berritzaileak proposatzen dizkiegu, besteari entzuten laguntzen diegu elkarrekin sortzeko xedearekin», diote proiektuaren arduradunek euren egitasmoaren berri ematen duen dossierrean.

Aurten, Pantzart konpainiaz gain, Ipar Euskal Herriko Kiribil antzerki taldeak eta Asier Kidam mago gasteiztarrek ere parte hartuko dute egonaldi artistikoetan. «Artistok gurekin partekatuko dituzte beren hausnarketa gai, proiektu eta sortuntzak. Ordainetan, erabiltzaileok begiradak, jakin-mina, momentu gogoangarriak oparitutako dizkiegu, beraientzat inspirazio iturri izango direlakoan», nabarmendu dute. Egonaldietan parte hartzen duten artistentzat «KunArteren ekosistema gune egokia» dela ere azaldu dute, «egoiliarrek aukera baitute beren lanak TallerArteko publikoaren aurrean testatzeko». Hain zuzen ere, TallerArte 3 eta 6 urte arteko haurren estimulazio artistikoa sustatzea du helburu.

Pantzart konpainiako kideak, Abetxukoko KunArte zentroan.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS





Laborategi artistikoa da eta bertan parte hartzen duten hurrek arteen aniztasuna bizitzeko esperientzia globala izaten dute. Ingelesa, euskara eta gaztelania erabiltzen dira aipatutako tailerretan eta KunArte proiektuan parte hartzen duten artistek tailerretan klaseak ematen dituzte, irakasle-tutorearekin batera.

Pilar Lopez Teatro Paraisoren koordinatzaile nagusiak tailerren garrantzia nabarmentzen du. Lopezen ustez, antzezlanak ikusten dituzten hurrek parte hartu behar dute ikuskizunetan. Esperimentazioa sustatu behar da, bizi izandakoa gogora dezaten. «Etorkizunean gogoratuko dituzten momentuak sortu nahi ditugu, itzala utziko dituzten momentuak», adierazi du, eta KunArtek proiektu berritzaileak sustatzeko balio duela azaltzen du. «Artistak zaintzen ditugu ondo egon daitezen, beraien sorkuntzetan lan egiteko aukera izan dezaten». Zentzu horretan, Teatro Paraisok KunArte proiektuan parte hartzen duten konpainiei etxebizitza bat uzten diela gogoratu behar da. «Egoera onean bizi behar dute», gaineratu du KunArteri esker konpainiek beraien mugak gaindi

Partzart taldea osatzen duten artistak eta Pilar Lopez, Teatro Paraiso konpainiako koordinatzaile nagusia.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

ditzaketela azaldu ostean. «Gure lana garrantzitsua dela uste dugu: artistak zaindu behar ditugu beraien proiektuek aurrera egiteko. Mezu hori helarazi behar diogu gizarteari», gaineratu du.

LAGUNTZA ESKERTZEN DUTE

Elena Bezanilla Pantzart konpainiako kideak biziki eskertzen du Teatro Paraisok egiten duen lana. «Laguntza handia eskaintzen digute, tartean lan egiteko oso ondo prestatutako leku bat. Baliabide gehiago ditugu gure lana egiteko», nabarmendu du.

Konpainiari dagokionez, Pantzart umeen arloan antzerki ekintzak garatzen dituen konpainia da, 2012an sortu zena arte eszenikoak berritzeko asmoz. «Arte plastikoak, txotxongiloak, musika eta literatura uztartzen ditugu, eta bizirik diren autoreekin lankidetzan aritzea dugu helburu», azaltzen dute konpainiako kideek. Orain arte hiru ikuskizun egin dituzte, hirurak Juan Kruz Igerabide eta Maria-sun Landaren testuetan oinarritutakoak. Bihar Txotxongilo Taldearekin elkarlanean lan egiten dute eta etorkizunean beste artista batzuekin kolaboratzeko gogoia eta asmoa dute.

Baina hori etorkizunean izango da, gaur «Kolorez kolore» antzezlanak aurkeztu behar dute eta Gasteizen, Abetxuko auzoan zehazki. Eta bertan topatuko duten publikoa oso zorrotza da: umeek ez dakite noiz jo behar dituzten txaloak, hurrek ikusten dutena interesgarria edo aspergarria den dakite bakarrik. Eta ikusten duten ikuskizuna ez bazaie gustatzen, ez dute arretaz jarraituko. Orain arte behintzat, Pantzareren antzezlanek txikien oniritzia lortu dute. «Gustatu zaizkie egin ditugun lanak», dio Bezanillak pozik.

Gaurko antzezlanak amaitu ostean, tailer bat egingo dute. Dosierrean azaldu dutenez, «kolore eta materialek ilustrazio itsaso bat osatzen dute, eta, ilustrazio horiekin jolastuz, irudi poetikoak sortzen dira». Datorren astean Kiribil antzerki taldeko kideak helduko dira Gasteizera, «Iz» ikuskizuna aurkezteko. Hilaren amaieran Sara Iglesias artistak hurrei zuzendutako tailer bat eskainiko du, eta, abenduan, Darte Danza, Teatro de la Caixeta eta Tyl Tyl Teatroren ordua helduko da. Amaitzeko, «Cia. No somos monstruos» tailerra egingo dute Arabako hiriburuan.

PANTZART, ASIER KIDAM MAGOA ETA KIRIBIL TALDEA

Egunotan Partzart konpainiako kideak ari dira buru-belarri lanean Abetxukon Teatro Paraisok duen egoitzan. Baina Pantzart konpainia ez da KunArte proiektuaren egonaldi artistikoetan parte hartuko duen bakarra.

Urrian Asiar Kidam mago gasteiztarra egon zen Abetxukon, eta berak eman zion hasiera denboraldi berriari. «Kidamek magiaren mundua hurbildu zigun sormenezko magia tailer eta ikuskizun baten bitartez, 'Jostailu magikoak' deitzen dena», nabarmentzen dute KunArteko arduradunek kaleratu duten dosierrean. Kidamek egindako ikuskizuna Ikusi Makusi zikloaren barruan eskaini zuten.

Datorren astean helduko dira Gasteizera Kiribil antzerki taldeko kideak, Ipar Euskal Herriatik datozenak. Hauek «Iz» ikuskizuna eskainiko dute. Dosierrean azaltzen den bezala, «Iz» ikuskizunak bizitzaren jatorria gogora ekartzen digu, euskal mitologiaren eskutik. «Iz» da argia, hitza, ura, mugimendua». Lau elementuok izango dira ondoren egingo duten tailerreko protagonistak.

Egonaldi artistikoetan parte hartzen duten artistak ez dira KunArte proiektuan zuzenean parte hartzen duten bakarrak. «Beste artista batzuk ere gonbidatu ditugu euren proiektuak etxe honetan sor ditzaten», azaldu dute proiektuaren arduradunek, «erresidentzia irekiak» ere antolatu dituztela gaineratuz. «KunArteko ateak beti daude zabalik lehen haurtzaroan inspiratutako sormen proiektuentzat».



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Fenomeno atmosferikoak

Ez dago, jaiki berritan, munduan lurrartzeko, albistegien amaierako eguraldiaren iragarpena entzutea bezalakorik. Jertse batekin nahikoa dugun ala berokia janzteia komeni den jakinda, lasaiago ateratzen baikara kalera normalean.

Michelinen subkontrata batentzat lanean ari zen gazte bat bost mila kiloko pieza batek azpian harrapatuta hiltzea. Altsasun, goizeko bostetan eta taberna batean, guardia zibilen eta gazte batzuen arteko enkontrua mutur joka bukatzea. Azken hamarkadetan euskararen ezagutza, gazteetan batez ere, hainbeste hazi eta gero egunerokoan inork ez erabiltzea. Atxilotu bat polizia-etxera eraman eta ordu gutxira hankak aurretik dituela ateratzea handik, zerraldo, eraman zuten berdinek. Iparraldeko herrialdeen apetitua aseezina izanda, hegoaldeko herrialdeetan jendea gosez akabatzea. Gizonezko batek bere emazte ohia hil arte jipoitzea. Banketxeak salbatzen diren estatu batean, jendea egunero bere bizilekutik kalera tzea. Geratzen diren A ereduiko ikastetxeak etorkinen seme-alaben ghetto bihurtzea. Kirmen Uribek Espainiako sari nazionalen bat irabaztea, bihar edo etzi. 400 preso politiko dituen herri batean, "bakea" esanahi bako hitza izatea. Jendea haserre egoitea. Jendeak gorrotoa sentitzea. Mediterraneon, gure muturren aurrean, hilero, beraien herrialdean sortu ditugun miseria eta gerretatik ihesi datozen milaka pertsona itotzea. Futbola izatea berriro ere gure sentimendu nazionala. Lurrak gero eta sarriago dardara egitea gure gomazko zolen azpian. Norbaitek euskaldunon kirtenkeria eta onberatasuna, normaltasun adostua zein den azpimarrazteko, andaluziarren alferkeria eta xelebrekeriekin elkartu nahi izatea telebista saio batean. Kolonbian bakea laudatzen duten berdinak izatea gero hemen, gerra predikatuz botoak

irabazten dituztenak. Hezurretaraino ustelduta dagoela agerian geratu bada ere, Alderdi Popularrak Espainia gobernatzen jarraitzea, 80 urteren buruan. Euskal Herrian duela gutxira arte borroka armatuan ziharduen erakunde bat existitzea. Erlojuak ordu bat atzeratzea izatea azkenaldian gizartean eman den aldaketa esanguratsuena. Ezkerrak eskuinari ematea eskerrak, eta aldrebes. Errege aitak sofán, barrez lehertzen den bitartean, egindako lanaren alde topa egiteko beste cava botila bat zabaltzea ahoarekin. Normaltasuna izatea nagusi gure errepideetan, botatzen ari denarekin.

Bihar haizeak hego-mendebaldetik joko duela dakigun modu berean, irensten ditugu gainontzekoak ere egunero. Gero eta zailagoa da albisteak eguraldiaren iragarpenetik bereiztea. Fenomeno atmosferikoen ondorioz gertatzen diren gauzak ematen dute guztiek. Halabeharrez gertatzen direnak, inork oso ondo zergatik gertatu diren ulertu barik. Beharrik ere ez. Nork bere buruari pisu bat gainetik kentzeko modu bat ere bada, inori esplikaziorik ez

eskatzea. Kontzientzia hartzen duenaren bizitza nekezagoa baita. Kausez jabetzearekin batera, gertaera horietan duen ardura ere onartzen duelako zeharka. Albiste horiek denak zoriaren ondorio direla sinestearekin konformatzen denak ez du horrelako ardurarik sentitzen. Eta jendeak ez du kezka gehiago nahi, nekatuta bizi da oro har. Zerua lainotuta dagoen edo ez jakiteko leihorik zabaldu behar ez badu, hobeto. Errazegi ohitu gara guztiok, orain inori matraka ematen hasteko.

Ez dizuet gezurrik esango; nik ere nahiago nuke bihar euria egitea etzi bakeak egitea bezain erraza balitz, baina, guk ezin dugu atmosferan hala eta hola eragin, euri premia egonagatik. Meteorologoez sinesgarritasun handiegia duten leku batean bizi gara gainera. Eta ez da harritzekoa ere, albistegietako aurkezleek lotsatu gabe esaten dituztenak entzunda.

Egiarekin eguraldiarekin bezala gertatzen da hemen: inoiz ez da denon gustukoa izaten eta zaila da alde z aurretik hemendik hilabete batera zer egingo duen jakitea. •



Egia, eguraldia bezala, inoiz ez da denon gustukoa izaten.

AMONDARAIN

{ koaderno } **Garazi Goia**

80 urte eta gero, telebista

Garai modernoko bakea eragotziko duen eragozpen berri eta jasanezina izango da. Edo, bestela, zeruko distira bat». Lehengo aldiz telebista asmatzeko esperimentuetan ibili zen ingeniari baten hitzak dira horiek. Gaur gauean, Londresen, telebistaren 80. urteurrena ospatzeko egin diren jardunaldietan egoteko aukera izan dut. Hain zuzen, gaurko egunez, 1936. urteko azaroaren 2an, BBC etxeak lehenengo aldiz definizio handiko irudiak transmititu zituen Londres iparraldeko Alexandra Palace eraikin ikonikotik. Alemaniako eta Ameriketako Estatu Batuetako telebista etxeak egiten ari ziren ikerketa lanak aurreratuago zihoazela eta haien atzetik gelditzeko beldurrez, Ingalaterrako Gobernuak BBCri diru laguntza bat eman zion telebista proiektuari bultzada bat emateko. Baldintza bakarra jarri zuten: irudien kalitatea ona izan behar zen, beste lurraldeetako baino hobea. Ordurako, hainbat irrati entzuleren eskutitzak ere jasotzen hasia zen BBC, irratia nahikoa ez zela eta telebistaren inguruan egiten ari ziren esperimentuari buruz galdezka eta lana oso astiro zihoala leporatuz.

1936ko azaroaren 2an, John Loige Bird ekintzaileak diseinatutako ekipamendu bat erabiliz, BBCko orkestraren eta Adele Dixon abeslariaren zuzeneko emanaldiekin hasi zen munduko lehenengo telebista proiektua. Ordu bat iraun zuen transmisioak; hain zuzen, orduan BBCko zuzendari zena arduratuta zegoen egunean denbora luzez telebistari begira egoteak begietan nekea eragingo zuela iradokiz. Londresko bostehun etxetan zeukaten telebista; agidan ez, gaurko dirutan hamabost mila libera inguru balio zuen orduan telebista bakoitzak. Transmisioa bideratu zuen lantaldeko inor ez dago gaur egun bizirik; baina BBCn lanean ari zen telebista produktore batekin, egun 104 urte dituen, hitz egiteko aukera izan du kazetari batek. Hunkigarria izan da haren hitzak entzutea. Pozgarria izan behar du telebistaren sorreratik orain arte dagoen ibilbidea osorik ikusi ahal izatea.

Telebista emanaldiak sortzen ari ziren oihartzuna eta edukitzen ari ziren arrakastaren ondoren, lantalde be-

rriak osatzen hasi ziren eta, denbora gutxiren ondoren, eguneko ordu gehienak beteko zituen programazioa edukitzera iritsi zen BBC.

Garai hartako martini koktelak eta kanapeak eskainiz harrera egin digute Alexandra Palaceko sarreran, benetan denboran atzera egin zuela zirudien gela ilun eta dekadente hartan. Leihorik gabeko leku itxian, 30eko hamarkadan zeuzkaten telebista estudioetara eraman nahi izan gaituzte, zuri-beltzean grabatutako irudiak erakusten dituzten pantailen artean. Gelaren alde batean, 1936. urteko telebista bat dago, balio handiko altxor baten moduan kontu handiz zaintzen ari den gizonaren begirada mesfidatipean. Cambridge Unibertsitateko ikasle talde batek garai hartako ekipamendua eta telebista egiteko modua birsortu ditu, eta irakasleak azaldu digu lehenengo emisio haien atzetik zegoen konplexutasun guztia.

Nork pentsatuko ote zuen orduan, laurogei urteren ostean herritarren gehiengoa lau orduz egongo zela egunero telebistaren aurrean. Zuzeneko saioak bakarrik ez, azken hamabost egunetako edozein eduki ikusi ahal izango genuela edozein lekutan

Nork pentsatuko ote zuen orduan, laurogei urteren ostean herritarren gehiengoa lau orduz egongo zela egunero telebistaren aurrean. Zuzeneko saioak bakarrik ez, azken hamabost egunetan erakutsitako edozein eduki ikusi ahal izango genuela edozein unetan, telebistan edo telefonoan bertan, edozein lekutan eskuragarri; edo trenean ikusten hasitako zuzeneko saio bat etxera iristean eten eta afalostean ikusten jarraitu ahal izango genuela. Edo, gutako bakoitzak adierazitako gomendio eta lehentasun batzuetan oinarrituz, bakoitzari neurritan egindako edukiak jasotzeko aukera izango zela.

Ez dakit garai modernoko eragozpen bat den telebista; baina, zalantzarik gabe, 1936. urtean aurreikusten zutena baino eragin handiagoa izan du gure bizitzetan. •

«Euskaratik eta herritik, lurretik, gure kosmobisioa sorkuntzan zertu nahi dugu»

Bertsolaria, Arabako eskolarteko txapelketa irabazitakoa. Bertso irakasle eta Hala Bedi irratian bertsolaritzaren gainera saio batean esatari ibilitakoa. Gaurkoan, ordea, ez dator bertso munduaz hitz egitera, musikaz, arteaz eta gazteriak euskal eszenan dituen arazoez eta kezkez baizik. Musika eta gaztea baita Ander Solozabal gasteiztarra. Beste musikari eta hainbat diziplinako lagun askorekin batera, Ez Dok Amaitu mugimenduko kidea ere bada. Bidelapurrak bere taldearekin jo zuen orain dela urtebete Donostiako Gazteszenan, mugimenduaren aurkezpenean.

Bada, mugimenduaren nondik norakoaren berri eman dio GAUR8ri. Bide batez, datorren 19an Gasteizen egingo duten topaketa ere iragarri du.

Ez Dok Amaitu mugimendua 2015eko azaroan sortu edo behintzat aurkeztu zenuten.

Bai, ideia iaz sortu zen, eta, azaroan, Egiako Gazteszenan egin genuen “Ez Dok Amaitu” izeneko jaialdian aurkeztu genuen. Haren atzean Unai Pelaio *Pelax* zebilen, eta bera eta beraren inguruko musikariak eta beste batzuk batzen hasi ginen. Jaialdian izena baliatuta, kolektibo bat sortu genuen, musika mundutik eta beste arte diziplina batzuetatik hurbildutako jendearekin. Batez ere aldarrikatzeko: «hau ez dok amaitu, ez don amaitu». Euskarazko sorkuntzak gazteongan eragin berezia duen bezala, gazteok biziberritzen gabilta. Hala, gu guztiok batzea inportantea zela iruditu zitzaigun.

Hortaz, ez da musika mugimendua bakarrik.

Ez, badago beste arte diziplina batzuetan dabilen jendea, edo, ibili gabe, diziplinok gustuko dituen jendea; esate baterako, ar-

gazkigintza edo arte plastikoak. Ekimena musikatik sortu bada eta gehienak musikariak bagara ere, arte diziplina guztietara zabalik dagoen kolektiboa gara; eta berarekin identifikatzen den edo berea dela sentitzen duen edonork parte har dezake.

Behin elkartuta, zer egin nahi duzue?

Salatu eta aldarrikatzeaz gain, babesgune bezala ulertzen dugu Ez Dok Amaitu. Lagunarteko mugimendua da, agertokian elkartu eta antzeko gustuak genituenona. Gauzez hitz egitea, kritikatzeko gustatzen zaigu, baina besteak beste musikariak gara, baita kontzertu antolatzaile-

ak ere, eta gure herrietako, gure auzoetako parte aktiboa. Gu ere bagaude amaraun kulturalaren barruan, sare horren barruan; beraz, inportantea iruditu zitzaigun ikusten genituen arazoei, ez bakarrik gure kontrakoei, baizik eta baita guk sortzen genituen ere, buelta bat eman eta euskal eszena eraldatzeko tresna bat sortzea, ahalik eta koherenteenak izanda. Eta hori batuta egin behar genuen, indar gehiago izateko. Eta ideiak sortzen hasi ziren; esate baterako, dekalogo bat egitekoa, antolatzaileei eta musikariei egindako eskaera batzuk bilduko dituen dekalogo. Adibidez, publikoa zaintzeko zer egin behar-

ko genukeen... Hau da, antolatzaile zein musikari lana modu koherentean egiteko betebeharrak. Zergatik? Askotan kontzertuak edo, hobeto, ekitaldi kulturalak merkantilizatu egiten direlako. Dena kuantitatiboki ikustera ohituta gaude: zenbat jende etorri den. Horrek baditu zenbait argazki; adibidez, sortzaileak ez du inongo diru sarrrerarik eta zuzenekoetatik bizi behar du. Horren barruan badaude sinergia ezberdinak, gutxien daukanari ematen zaio gutxien eta gehien duenari gehien. Oreak falta hori, arazo horiek guztiak kolektiboki salatzearaz gain, babesgune bezala ulertzen dugu Ez Dok Amaitu.

Elkarren babesgune, ezta?

Jende piloa dago Euskal Herrian gauzak egiten, artea sortzen, eta, diziplina guztietan, dirua behar duzu. Esate baterako, arte plastikoetan, margo eta materialetan gastatzeko; musikan, zuzeneko bat egin nahi baduzu, badituzu desplazamendu eta material gastuak, eta bestela ere talde batek anplifikadoreak eta tresnak behar ditu, entsegu lokala, mantentze gastuak... Hori guztia oso garestia da eta jendeak erreta bukatzen du. Ez Dok Amaitu jende horri laguntzeko sortu dugu, talde ezezagunei, hasiberriei. Kritikatzeko dugun horrek sortzen dituen zailtasun horietatik ateratzeko, eta guk kultura herriarentzat izatea nahi dugun heinean, ikusten dugu esandako oreka falta horri aurre egin behar diogula. Ez dugu honetatik aberastu nahi, ez dugu inongo ekoiztetxetan egon nahi; autoekoizpenak bultzatu nahi ditugu, eta, nolabait esateko, herriarentzako juglare izan nahi dugu. Baina musikaren industria kritikatzeko dugun aldi berean –hor daude kanonak eta beste hainbat interes, guztia kontrolatzen duten magnateak...– behar ekonomiko horiei erantzuteko premia ikusi genuen.

Merkatuaren zurrumbilo kapitalista horretatik aldendu nahi duzue?

Iruditzen zaigu euskal eszenan alde batetik azken hamarkade-

tako erreferente batzuk daudela, beti berberak, eta bestetik talde sortzaile pila bat, kontzertu pila bat ematen dituztenak, baina beren lana ezagutaraztea lortzen ez dutenak. Horregatik uste dugu gauza berriak programatzeko ausardia falta dela. Eta kontua da zurrumbilo horretatik aldendu nahian, guk geuk erreproduzitu egin dezakegula. Horregatik egiten ari gara dekalogo bat musikari eta antolatzaile bezala, zenbait betebeharrak jasotzen dituen dekalogo bat. Aurreratu ta samar dago, eta azaroaren 19an, Gasteizen, eztabaidatuko dugu goizean izango diren taillerretan, forma emateko eta borbiltzeko. Esan bezala, gauza berriak programatzeko ausardia behar da, baina beti merkantilizazio horren menpe gaude.

Instituzioei ezer eskatzen al diezue?

Instituzioei eskatzen diegu kulturari behar duen prestigioa eman diezaiotela. Sortzaile bezala hainbat kezka genituen, eta horregatik elkartu gara, arazo horientzat konponbide bat bilatzeko. Eta instituzioei ez ezik, herritarrei ere eskatzen diegu esate baterako kontzertu bat antolatzen dugunean, dekalogoan azalduko diren eskaera edo betebeharrak horiek guztiak kontuan hartzeko.

Faktore ekonomikoa hor dagoen arren, ez da nagusia, beraz.

Ez, guk eskatzen dugu kultura behar bezala zaintzeko, eta ez merkantilizatzeko; hau da, kualitatiboki zaintzeko, ez bakarrik kontzertuei dagokionez, baizik eta arteari eta diziplina guztien ikaskuntzari dagokionez, jende guztiak eskura izan dezala kultura. Hori eskatzen diegu instituzioei, baina instituzioek ezer egiten ez dutenez, herriari ere eskatzen diegu hori guztia kontuan hartzeko.

Kulturaren mundu ofizial edo ezarritakoaz gain badela beste bat ikusarazi nahi duzue?

Bai, bai, batez ere publikoari gu ezagutzeko aukera eman, gazteek egun euskaraz sortzen dutena ezagut dezaten. Jakina, atze-

ANDER SOLOZABAL

EZ DOK AMAITUKO KIDEA

Euskal sortzaile berrien babesgune, emakumeen presentziaren aldarrikatzaile, euskal eszenaren eraldatzaile. Ez Dok Amaitu. Hilaren 19an, Gasteiz du bilgune.

Xabier Izaga Gonzalez

«Merkatuaren zurrumbilotik aldendu nahian, guk geuk ere erreproduzitu egin dezakegu. Horregatik ari gara dekalogo bat egiten musikari eta antolatzaile bezala, zenbait betebeharrak jasotzen dituen dekalogo bat»



Argazkiak: Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

tik mamu asko dauzkagu, batez ere, esate baterako, kontsumitzeko modua. Musikarekin zorteko gara, jende guztiak kontsumitzen duelako musika, beste gauza batzuk ez bezala. Baliteke eskultura bakar baten izena ez dakien eta bizitza osoan obra bakar bat ukitu ez duen jendea egotea, baina musika egunero entzuten dugu; hori bai, gertatzen da irrati formulek musika alienagarria dakartela, horregatik ikusten dugu beharrezko herriari erremintak ematea, horri guztiari erreparatzeko. Eta zirkuitu komertzialetik kanpo, *underground*, lur azpian edo nahi duzun bezala bizi direnei, guk sinesten dugun balioei bultzada bat ematea. Horrek kulturaren kontsumo ohituren aldaketa bat ekarriko luke.

Emakumeen presentzia ere kontuan hartu duzue.

Hori gure puntu nagusietakoa da. Emakumeen presentzia, bai-

na ez agertoki gainean bakarrik. Argi dago akademikoki, kontserbatorioetan edo musika eskoletan, portzentajeak berdintsuak direla, edo are, neskak mutilak baino gehixeago direla, baina gero, handik irteteko unea iritsita, sortzeko orduan, akademiako moldeak apurtu behar dituzu, jendearekin bat egin behar duzu, jendea ezinbestekoa baita prozesu horretan, eta emakumeek emakume gisa egin behar diote aurre horri. Lehenik agertokira igotzeko gogoia izan behar dute, hain gizonezkoena den mundu batean, eta ez bakarrik agertoki gainean, e? Izan ere, berdindatzen da teknika-ri lanetan, kartelgintzan edota antolakuntzan ere. Orduan, beharrezko ikusten dugu hori orekatzea eta gizonezkoek ere lauzpabost pauso atzera ematea eta beren ingurura begiratzea. Eta ez emakumei dagokienez bakarrik. Agertokian, entsegu lokalean edo musikaren munduan gi-

BALANTZEA ETA AURRERA BEGIRAKO HAUSNARKETA

Duela urtebete Donostiako Gazteszenan izan zen jaialdian Physis versus Nomos Band, Eraul, Pelax eta Cowboy's Orchestra, Bidelapurak, Humus eta Liher talde eta bakarlariek abestu zuten. Ez dira irratan edo telebistan gehien entzuten diren taldeak, baina kontzertua arrakastatsua izan zen. Edonola ere, kontzertu bat baino askoz gehiago izan zen Gazteszenako hura: Ez Dok Amaitu mugimenduaren aurkezpena izan zen.

Urtebete igarota, Ander Solozabalek, mugimendu horren izaeraren eta proiektuen berri eman dio GAUR8ri. Baita hilaren 19an Gasteizko Gaztetxean duten topaketarako prestatu dituzten jardueren berri ere. Egun osoko programazioa prestatu dute, goizeko hamarretan hasita. Lehenengo tailerrak, nork bere gustukoa hauta dezan: letragintzakoa, Ez Dok Amaituren dekalogoaren ingurukoa, egiletza eskubideen gainekoa eta aurrera begirako pausoen ingurukoa. 11:30ean mahai-inguru bat izango da. Ondoren, musika tresnak hartu eta kantu-poteoa izango da Aiztogile (Kutxi) kalean zehar, «baina ez da talde batuketa izango, baizik eta musikariak, hainbat taldetakoak edo inongo taldetakoak ez direnak elkartuko gara abesti ezagunak jotzeko», dio Anderrek. Jarraian, bazkari herrikoia. Azkenik, 18:00etan, jaialdia izango da honako bakarleri eta taldeekin: Olatz Salvador, Bob Xatar, Mikel Uraken, Eratu, Mor-More eta Telmo Trenor.

roa den modukoa izanda, beste-ei ez zaie bidea hain argi uzten. Beraz, horretan ere badihardugu, ez baitugu hori erreproduzitu nahi.

Kulturatik, bereziki musikatik, sortutako mugimendua zarete. Baina gizarte kontzientzia nabarmena duzue, ezta?

Hori da. Mundua nola dagoen ikusita, eta artearen mundua horretatik kanpo ez dagoenez, euskaratik eta herritik, lurretik, gure kosmobisioa sorkuntzan zertu nahi dugu. Sortzaile bezala ari zara zure sinismenez, zure balioez, munduari begiratzeko zure modu horretaz hitz egiten, eta gero zure praktika guztiz kontrakoa dela ikusten baduzu... Oso hipokrita litzateke industriaren barruan sartu nahi izatea horretan sinesten ez dugula.

Horrek baditu bere arriskuak.

Jakina. Izan ere, badihardu jendea eklektikoagoa dela, musika as-

koz ere biziagoa, askoz ere sinpleagoa kontsumitzen duela, ez diola garrantzirik ematen arriskuari, abangoardiari.

Lehengora garamatza horrek, sistemak horretara bideratzen duelako.

Sistemak irentsi egiten gaitu. Gu hizkuntza oso txiki baten, hizkuntza minorizatu baten parte gara, hizkuntza horretan sortzen dugu, eta, zorionez, Euskal Herrian bizi gara, non kultura maila, artea, nahiko zaintzen den, herriak behintzat hala egiten du; orduan, zorioneko gara, egon badagoelako eskaintza, eta eskaera. Aldiz, guk nahiko genituzkeen bezalako eremu utopiko asko falta dira, edo, egonez gero, badiutuzte euren akatsak. Euskal Herrian bizitzeaz harro egonda, euskal kulturari hauspoa eman nahi diogu eta nolabait ere ez-tanda egin dezala leku guztietatik, hainbat diziplina batuta. Bidean elkar ezagutzen goaz, apurka-apurka, Ez Dok Amaitu ez baita epe motzera begirako proiektua. Epe laburrera, esan bezala, babesgune izan nahi dugu, Euskal Herri osoko sortzaileak batzeko, beste nazio batzuetako sortzaileekin batu eta trukeak egiteko... bide. Eta sortzen dugunak irudikatzen duen hori ere ikusarazi nahi dugu.

Orain zertan diharduzue, zer proiektu konkretu dituzue?

Kontuan izan batez ere erreminta bat izan nahi dugula, gure premiak eta kezak kanalizatzeko. Baina bai, badugu proiekturik; esate baterako, rock udalekuak sortzea. Kontuan izan, halaber, maila lokalean badaudela batez ere musikari lotutako kolektiboak; adibidez, Gasteizen Musik Gerrilla, edo Hala Bedi... Baina guk nahi duguna maila lokalean dihardugunok elkartu eta guztiok batera euskaraz sortzen den musika ez komertziala landu eta autoekoizpenak bultzatzea da. Egun erraza da disko bat grabatzea, ez da duela 50 urte bezala, diru pila bat balio zutenean. Horregatik nahi ditugu autoekoizpenak sustatu, jendea-ri grabatzen lagunduz eta aldi berean lanok promozionatuz.



Beste ideia bat da herriz herri joan eta Ez Dok Amaitu festibalak iragartzea, jendea talde berriak ezagutzera bultzatzeko. Hau da, inongo talderen izenik aipatu gabe kontzertuak iragartzeko. Baliteke talde berri bat joatea, edo oso talde ezaguna agertzea, baina betiere iragarri gabe. Ahaleginduko gara ikuskizun horiek berezi egiten, diziplina desberdinetako jendea batuta.

Esan duzunez, euskarazko sortkuntza aintzat hartzen duzue.

Bai, lehentasuna ematen diogu euskarari. Datorren 19an Gasteizko Gaztetxean izango diren talde guztiek euskaraz kantatuko dute, eta iaz Gazteszenan ere hala egin genuen. Tira, azkene-

«Emakumeen presentzia gure puntu nagusietakoa da. Emakumeen presentzia, hori bai, ez agertoki gainean bakarrik»



an, polifonia gauza ona da, eta badira talde batzuk beste hizkuntza batean kantatzen dutenak, baina kontu horri erreparatzea ere nahi dugu. Badago ingelesez kantatzeko moda, eta hemengoek ez dute ulertzen zuk kantatzen duzuna, baina ezta ingeles hiztunek ere, ez baitute zure ingelesa ulertzen! Prestigio kontua dago horretan, euskararen prestigioa, alegia.

Zuen erreferentzia Ez Dok Amairu 6oko hamarkadako mugimendua da?

Tira, guk erreferentzia egiten diogu mugimendu hari, ez dugu hura izan nahi, baina orduan bezala egun ere gazteok bizi garen garaian bizi izanda, gure

kezkez kantatu nahi dugu, bat egin eta sortu ahal izango den espazio bat lortu. Proiektu honek ezer berezia badu, elkartasuna sustatzen duen taldea izatea izango da.

Aurrekoa entzun baino lehen, Ez Dok Amairurekiko konparaketa gehiegizkoa ez ote den galdetu behar nizun.

Guk ulertzen dugu euskal musikagintzak eboluzio bat izan duela: *nova canço* eta protesta abestitik etorritako eragina, Ez Dok Amairu, rocka eta Errobi, punka eta *rebel sound* delakoa... Egun joera intimistagoa nagusitu dela ematen du, eta eboluzionatzen jarraitzen dugu, egiten jarraitzen dugu. Inoiz baino talde gehiago daude: horregatik esaten dugu Ez Dok Amaitu.

Izan ere, kultur eta gizarte kezka batzuetatik sortutako mugimendua da, hura bezala.

Jakina. Ez gara Ez Dok Amairu, baina gure proiektua aldarri bat da, hura bezala. Ez dela amaitu aldarrikatzen dugu, alienazioaren aurka, kultura kontsumitzeko ezarritako modu errazaren aurka, hemengoa sortzearen alde. Esan bezala, apurka-apurka egiten ari den egitasmoa da, ez sei hilabete barru gauzatuko den zerbait, baizik eta egosten ari den zerbait. Bestetik, transmisioari ere garrantzia ematen diogu. Gazteak gara, hasiberriak, baina musikan, artean, kulturari bizitza osoa daramatenekin esperientziak partekatu nahi genituzke. Guztiz irekita dagoen proiektua da, guztiz horizontala, eta jaialdiak egiteko bezala beste edozein proposamen aintzat hartzeko prest gaude.

Urtebeteko ibiliaren balantzerik egin al duzue?

Hilaren 19an egingo dugu, baina, esan bezala, ez dugu presarik. Gainera, ez da erraza, Euskal Herri osoko proiektua izanda. Baina bai, larunbatean egingo dugu balantzea eta zehaztuko ditugu aurrera begirako pausak, horrexen gainekoa izango da tailerretako bat. Edonola ere, oraindik barrura begirago ari gara kanpora begira baino.



GAUR8 *ireki gure leihoo*



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Sabrina PATO

Borraja eta patata opila

OSAGIAK

Patata kilo bat
Kilo erdi borraja
Kipula bat
Berakatz ale bat
100 gramo urdaiazpiko
Gazta birrindua (aukeran)
Gatza
Piper hautsa

PRESTAKETA

1. Patatak zuritu eta zatitxotan ebaki.
2. Borrajak ongi garbitu eta zati txikitan ebaki. Izan ere, zatiak txikiak badira, egosi ondoren ez dira ileak nabaritzen.
3. Lapiko batean patatak eta borrajak gatz pixka batekin egosi. 15 minutu inguru, bigundu arte.
4. Ura kendu eta hozten utzi.
5. Kipula eta berakatz lauki txikitxotan ebaki eta oliotan erregosi.
6. Urdaiazpikoa moztu eta kipulari gehitu. Sua kendu.
7. Sardexka baten laguntzaz, patata eta borrajak zapaldu.
8. Kipula eta urdaiazpikoa nahastu patata eta borrajari.
9. Zartagina sutan ipini olio tanta batekin, beroa dagoenean nahaske-ta bota. Opil (tortilla) itxura eman egurrezko koilararekin. 2 minutuz egiten utzi, zarakarra egin arte.
10. Ondoren, buelta eman. Kolorea hartu behar du.
11. Platerera atera eta, nahi izanez gero, gazta birrinduekin apaindu.

Hostodun barazkiak

Aurtengo eguraldiari errepa-ratuta gezurra badirudi ere, udazken bete-betean murgilduta gaude jada. Bere kolore-eztanda adie-razgarriarekin batera, barazki eta fruta aukera oparoa dakar udazkenak; bere lehenengo asteetan udan ematen diren barazki berberak eskaintzen dizkigu, baina urtaroa aurrera doan heinean zenbait ortuariren sasoia bukatzen da eta beste batzuek hartzen dute protagonismoa. Trantsizio-urtaroa da beraz; natura neguari ongi etorria emateko gertatzen hasten da eta gure gorputzak joera berbera hartu beharko luke. Barazki eta fruta freskagarrietatik, lapikoan ego-sitako jaki beroetara.

Gure mahaietan sarri ikusten ditugun bi barazkiz mintzatuko gara gaurkoan: zerbak eta ziazerbak. Kenopodiazeoen fa-

miliako ortuariok ez dira udazkeneko barazkiak soilik, ia urte osoan aurki baitaitezke baratzetan. Landareontzat garairik oparoenak uda eta udazkena diren arren, neguan ere aurki daitezke, estalpean hazitakoak.

Ziazerbak eta zerbak aberatsak dira zuntz eta A, C, B1 eta B2 bitaminatan. Mineraletz dagokienez, berriz, kaltzio, kobre, burdin, iodo, manganeso, magnesio, fosforo eta zink iturri dira. Horiek guztiok beharrezko mantenugaiak dira, gure gorputzean funtzio ezberdinak betetzen baitituzte.

Hala ere, dena ez da beti ona barazkio-tan: nitratoak pilatzeko joera dute. Substantziok ezinbestekoak dira landareen hazkunderako (kantitate egokian, noski). Argitu beharra dago jatorri ekologikoko zerba eta ziazerbek nitrato gutxiago pila-tzen dituztela konbentzionalek baino.

Beste alde batetik, kontuan izan negutegietan hazitako barazkiek nitrato gehi-go pilatzen dituztela. Baina, zergatik ez dira oso gomendagarriak nitratoak? Gure organismoan nitrito bihurtzen dira eta nitritoek odoleko oxigeno maila jaisten dute. Ondorioz, gorputza gutxiago oxigenatzen da eta azkarrago nekatzeko joera ere hartzen du. Nitratoak arriskutsuagoak dira gure dieta abere-proteinatan aberatsa bada: beste aminoazido batzuekin elkartzean, nitrosaminak sortzen dira. Badirudi azken horiek minbizia sortzeko joera izan dezaketela.

Nitratoak ekiditeko neurri erraz batzuk badira: garaikoak eta ekologikoak diren barazkiak kontsumitzea; barazkiak ongi garbitzea; barazkiak paperean bilduta (plastikoa ekidinez) hotzean gordetzea; barazkiak batu edo erosi ostean berehala prestatzea. Osasunaren Mundu Erakun-

deak barazkiok astean behin (haurrak, gaixoak...) edo bitan jatea gomendatzen du. Elikadura orekatu baten barruan ez lukete arazorik sortu beharko.

Hurrei dagokienez, normalean ez dituzte barazkiok maite. Gaur alternatiba bat proposatzen dizuegu: borraja; nafar askoren arabera, ortuko erregina! Barazki berdea hau ere, zaporez askoz finagoa da eta ia urte osoan aurki daiteke. Nutriente aldetik aurrekoen antzekoa, nitrato gutxiago pilatzen baditu ere. Askok eragozpen bat aurkituko diozue: garbitzea eta prestatzea. Trikimailutxo bat: borraja oso erraz garbitzen da mostratza baten laguntzarekin. Goian jasotako errezeta oso sinplea eta erraza da, beraz, animatu dastatzera eta esango diguzue!

Sabrina Pato
(www.ekolapiko.net)

Ziaboga hartzeko garaia da

Saioa Iraola

Euskal Herriko bake prozesua indartzeko bokazioarekin jaio zen Foro Sozialak bost urteko ibilbidea egin du, eta urriaren 22an iragarri zuten Foro Sozial Iraunkorra abiatuko dela. Bertan izan nintzen, azken urte hauetan zehar egindako bakearen eta bizikidetzaren aldeko hainbat ekimenetan bezalaxe. Alderdi politikoetako jende andana bildu zen, baita arlo sozialeko zein kulturaleko hainbat lagun ere. Ekimen guztietan, ondorio nagusienetako bat honakoa izan da: gizarte zibilaren parte hartzearen garrantzia.

Gizarte zibilaz dihardugu, baina nortaz ari gara? Pentsatzen dut alferrikakoa dela gizarte zibilaren inguruko definizio oso eta bakar bat topatzea. Baina definizio anitzek esaten dute jendarte zibila osatzen dutela

estatutik eta ekonomiatik aparte egituratuta dauden pertsona eta elkarteek, hala nola: kultur elkarteek, kirol elkarteek, komunikabideek, herri ekimenek, elizek, genero, arraza eta sexualitateari lotutako elkarteak, sindikatuek... Gizarte zibila boterearen banaketarekin estuki lotuta dago, Foucault-en arabera, gobernu liberalek boterea taxutzeko eduki duten era berritua litzateke.

Nire ustetan, gizarte zibilaz hitz egiten dugunean, kosta egiten zaigu identifikatzea berau osatzen duten subjektuak eta taldeak nortzuk diren. Azken batean, han eta hemen, gutaz ari direla entzuten dugu, askotan, guk geuk jakin gabe. Eta horrek kezkatzen nau, baldin eta Euskal Herriko bake prozesuan irtenbidea triangelua osatzen duten hiru ardatzen akordioetatik

(instituzioak, gizarte zibila eta Egiaztatze eta Jarraipen Batzordea) etorriko bada behintzat. Nire aburuz, jendartean antolatutako subjektuok ardura daukagu abagune honetan eragiteko, ados. Baina pentsatzen dut prozesuan ezinbestekoak diren langai batzuk baditugula, hots, jendarte zibilaren ezaugarritzearen inguruko adostasuna lortzea, berau ahalduntzeko estrategiak sustatzea, parte hartzerako espazioak ahalbidetzea eta komunikazio zubi eraginkorrak sortzea. Euskal Herrian, zorrionez, gizarte zein kultur mugimendu indartsu eta anitza dugu, beraz, ziaboga hartzeko momentua da, ez baitut zalantzarik gizarte zibil indartsu eta aktibo bat izango dela herri honen demokrazia eta bakearen bermea. •

Xostakovitx

Joxean Agirre

Batzuetan txikiek beren buruaz barre egiteko erabiltzen dute umorea. Augusto Monterroso idazleak 1,60 neurtzen zuen eta hamaika txiste egin zuen horren kontura. Lazkao Txiki bertsolariak ere etekin ederra atera zion bere txikitasunari. Marttin Trekuk ere bozkario puntu batekin eraman zuen bere txikitasuna. Horrek ez du esan nahi, ordea, pertsona laburrak zoriontsuago direnik, umore mingotseko txikien zerrenda izugarria baita.

Umoreak, dena den, txikiak handiari aurre egiteko ere balio dezake. Jose Mari Esparzak jotari buruzko bere liburuan *Chacoli* izeneko Tafallako jotero bat aipatzen du. 80ko hamarkadaren hasieran herriko taberna batean ardo bat edaten ari zela PSOEko buruzagi garrantzitsu batzuk sartu omen ziren eta jota bat kantatzeko eskatu

zioten. «*Navarros y vascongados/ tenemos algo pendiente/ hacer una patria unida/ euskaldun e independiente*», kantatu omen zuen. Ez zioten bigarrenik eskatu.

Askoz ere bihurriagoa da, beste adibide bat aipatzearen, Rolling Stones taldeak erregina britainiarraren aurrean lehen aldiz jo zuenean Mick Jaggerrek aurkezpenean egin zuen txistea: «Atzeko lerroetakoek txalo jo dezakezue. Lehen lerroetakook nahikoa duzue besoetako bitxiak astintzearekin». Badago agintearen aurrean kolektiboki defendatzen gaituen umore bat ere. Egunkari honetan bertan Tasioren tira horrelakoa da. Zaldieroarena “Berria”-n ere hortik doa, nahiz eta geure buruari barre egiteko ere balio izaten duen.

Agintea erabat krudela eta totalitarioa denean, ordea, umorearentzat apenas gel-

ditzen den lekurik. Egunotan irakurri dut, Xostakovitx musikariaren kasua gaitzat hartuta, Julian Barnes idazleak udaberrian atera eta berriki gaztelerara itzuli duten “El ruido del tiempo” eleberri ederra. Stalinen garaia da eta Siberiara deportatu edo heriotzara kondenatuko duten beldurrarekin idatziko ditu bere lanak, tarteka estetika ofizialari men eginez. Drama hori irakurtzen ari nintzen bitartean gurean eman diren kasu batzuekin gogoratzen nintzen, Julio Beobide eskultorearekin esate baterako, abertzalea izanik, frankismoak emandako enkargu zenbait egin behar izan baitzituen, horien artean Francok El Pardon zuen kaperarako Kristo bat, gero *Valle de los Caidos* delakoaren aldare nagusian jarri zutena, edo Azpeitiko sarreran eraiki zuten frankisten monumentuko eskultura nagusia. •



Donibane Lohizunen jaioa eta euskalduna da Idoia Rodriguez, baina bere lehen liburua frantsesez idatzi du.

Isabelle MIQUELESTORENA

infraganti

IDOIA RODRIGUEZ MONDRAGON

«Etats de Crises» izeneko liburua argitaratu du duela aste gutxi. Krisi egoerak jasotzen dituzten ipuin laburrak dira, frantsesez emanak, egileak dioenez naturalki frantsesez idazten duelako. Donibane Lohizunekoak aitortzen duenez, idazteak on egiten dio eta idazteko beharra sentitzen du. Besteen korapiloaz idatzi bereak askatzen laguntzeko.

Orain dela 27 urte sortu zen Idoia Rodriguez Mondragon Donibane Lohizunen, eta orain dela aste gutxi aurkeztu du bere lehen liburua, «Etats de Crises» (krisi egoerak), helduentzat zuzendutako ipuin laburrekin osatua. Euskalduna da, kolegio pribatu batean euskarazko irakaslea zehazki, baina frantsesez idatzi ditu ipuinak osoki. «Ene ama hizkuntza fran-

tsesa da, idazteko eta irakurtzeko; irakurtzen dut euskal literatura ere, baina, egia erran, zailago egiten zait. Gero, ez da berdin hitz egitea eta idaztea, nik lasaiki hitz egin baitezaket euskaraz, baina, idazterakoan, beste zerbait behar dela uste dut. Bestalde familia frantses hiztuna dut, euskara ez dut etxekoa beraz, erran genezake akademikoa dudala, fakultatean hala ikasten nuen, eta naturalki frantsesez idazten dut; beharbada ona litzateke norbaitek testuak hartu

eta euskarara eramatea. Ez dut baztertzen nonoiz euskaraz idaztea, baina momentukotz ez nuen hipokrisiaz agertzeko gogorik».

Bere lehen liburua denaren sorkuntza eta eraikuntza prozesua nola izan den galdetuta arnas hartu eta pausaz erantzuten digu, kokapen egoki bat eskaini nahi baligu bezala. «Beti ukan dut ipuinak idazteko beharra, kolegioan idazten nituen jadanik, irakasleei erakusten nizkien eta haiek aholkatu zidaten lite-

ratura ikastea ondorenean, baina ez nuen hala egin. Gero, duela bi urte edo, ipuinetan barneratzen hasi nintzen, gauza eraikiagoak egiten, ingurukoei irakurrarazi nizkien, eta, noski, haiek preziatu zuten, baina tira, ingurukoak ezin dira erreferentzia bakar izan. Honela, pertsona profesional batzuei erakutsi nizkien eta haiek interesgarriak atzeman zituzten, sakontzeko aholkatu zidaten, bazela egitekorik. Eta horretan aritu nintzen buru-belarri, ipuinak ontzen, nolabait betidanik bainean li-buru bat argitaratzeko nahia, nire izen eta abizenekin. Baina ausardia falta zitzaidan, urrunago joateko bultzada, besteei nik idatzitakoa erakusteko behar den gauza hori».

KRISIAK, IPUINEN ARTEKO LOTURA

Liburuan badira elkarrekin harremana duten ipuin batzuk, hau da, istorio bereko zatiak direnak, eta lotura zehatza ageri dute haiek, baina desberdinak dira oro har, edonork egoera erreal askorekin identifika ditzakeenak; halere, berdintasunik ere bada ipuinen artean, eta horiek, pertsonaiek bizi dituzten egoerak dira, ironia puntu handi batez aurkeztuak daude, sarkastikoki landuta, eta beharbada horrek eraman zuen Idoia «Etats de crises» izenburua hautatzera. «Egia erran ez nuen buruan liburuari ezarri diodan titulua. Nik niretzat idazten nuen, barnean lotuta neukan zerbait askatzeko, pertsona batzuek kirola egin behar duten bezala, edo beste batzuek pintura edo musikaren lantzeko premia duten gisa, nik idazteko beharra daukat, on egiten dit, eta ohartu nintzelarik idatzitako ipuin guztiekin zerbait egin nezakeela, haien artean lotura zuzen bat agertu zitzaidan; nortasunaren aldetik, harremanetan, edo beraien bizi sozialean krisiren bat bizitzen zuten pertsonaia guztiek, eta hor ikusi nuen liburua identifikatzeko ebidentzia».

Eta ebidentzia horiek eraikitzen nondik hasten den galdegitea otu zaigu. «Lehenik ideia bat ukaitea eta hura idaztea izaten da; adibidez, autoan joatean, lo-



«Nik niretzat idazten nuen, barnean lotuta neukan zerbait askatzeko. Batzuek kirola egiteko edo beste batzuek pintura lantzeko premia duten gisa, nik idazteko beharra daukat»

«Denok dugu erokeria puntu bat, baina ez dugu burura eramaten. Nire ipuinetan jasaten ez ditugun egoera horiek ez dituzte kontrolatzen pertsonaiek eta krisi egoerak dituzte»

kartu aitzin, edo norbaitekin mintzatzean zerbaitek tilt egiten dit, hori harrapatu eta idazten hasten naiz, jarraian idazteko usaia daukat, eta gero bizpahiru egunez horretan berean uzten dut, lozorroan bezala, ondotik idatzia berrartu eta landu egiten dut. Ezin dut ipuin berri bat hasi bestea bukatu aitzin».

Egilea bere pertsonaiaetan eza gutzen ote den, edo ipuinetako protagonistaren batekin identifikatzen ote den bistara datorren kezka da liburua irakurtzean, eta ezinbesteko galdera bihurtzen da Idoiarekin elkartzean. «Uste dut pertsonaia guztiekin identifikatu ahal garela,

denetarik bada, baina bihurriak dira pertsonaia batzuk, eta inuzenteak bestetzuk; bizitzan, gu, ez gara beltzak ala zuriak, badugu iluntasun parte bat argitik bezala, barnean daukagu erokeria bat adibidez, baina ez dugu burura eramaten, pentsamolde bat ukan dezakegu baina beste manera batean jokatu, eta nire ipuinetan jasaten ez ditugun egoera horiek ez dituzte kontrolatzen pertsonaiek eta krisi egoerak dituzte; gure akatsak azaltzen dituzte». Deigarri egin zaigu pertsona bakoitzak daukagun erokeriarena eta sakontzeko eskatu diogu. «Pentsatzen dut denok daukagula barnean uki dezakegun muga bat, agian

batzuek ez dute erakusten beren erokeria puntua, eusten dakitelako, eta konstante gisa ageri dira, segurtasunez beteak, baina nik adibidez badakit fite uki dezakedala ene muga, eta gainditua senti naitekeela segidan, gainera gaurko gizartean dena egina da gaindituak senti gaitezen, lanaren alineazioarengatik edo bikote harremanarengatik, buruan sartzen baitigute uros bizitzeko bikote bat ukan behar dugula. Baina denontzat ez da ona eredu hori, ez gara bortxaz formatu bakar batean bizitzeko eginak, eta ezin gara egokitu orokortasunera».

Epoka baten agerpena dago Idoia Rodriguezen liburuaren barnean; problematika garaikideak zedarritzen dituzte ipuinek, bikote harremanak, emakumearen eskubideen gabezia eta zapalkuntza, drogen eragina... Bestetik, bere idazkien irakurketak, ipuin horiekin zerbait luzeago egin daitekeela pentsarazi digu, eta hala iradoki diogu. «Tarantino etortzen bazait film bat egin nahi duela erranaz, baietz erranen diot. A, eta Almodovar etortzen bazait ere bai, noski», umorez erantzun digu,

eta seriora itzuli da gero. «Bada azken ipuin bat, 'Silencio' izeneko, alaba bat eta bere amaren arteko harremanari buruz mintzo dena; hor badakit garatzeko badela, alabaren nerabe ikuspuntu hori biziki maite dut gainera, eta badira bisualak diren beste batzuk, landu nitzakeenak gehiago. Momentukotz kontent naiz honekin, jendeak harrera ona egin dio liburuari, gainera bitxia da, ezen hala adierazi didaten pertsona batzuek ipuin konkretu batzuk maitatu dituzte besteak baino gehiago, eta alderantzizkoa pasa zait beste jende batzuekin. Agian hor dago xarma, ipuinak bere egin dituztela jendeek».

AUTOEDIZIOAREN ALDEKO APUSTUA

Durangoko liburu azoka ate-joka daukagun garai honetan, han-hemenka ari dira liburu berriak argitaratzen, halere, ez da ohikoa idazki luze bat argitalexterik gabe plazaratzea. Bada, autoedizioaren aldeko apustua egin du Idoiak. Bestalde, liburu argitaratzeko modua ere bitxia izan zen, festa ospakizun bat egin zuelako Ziburuko taberna batean; hurbilekoak izan zituen ondoan, familia eta lagunak, eta han jarri zen liburuak sinatu eta saltzen.

«Argitalexte batek proposamen bat egin zidan, baina ez nuen halakorik nahi. Ez naiz inorengana zuzendu liburu argitaratzeko, hasieratik bukaeraino nik egin nahi nuelako dena, badakit ez dela perfektua, izango direla akatsak behar bada, eta ukan dut laguntza make-tatzeko eta beste, baina nire lana da hau, eta nik egon nahi nuen gainean. Ez da erraza gero liburu dendetara joan eta salgai jar dezaten lortzea, ohitura dutelako argitalexteek bidalitakoe-kin lan egitea; nik zuzenean saltzen ditut, *e-book* gisa salgai dut Amazonen, blogean ere bai, *Ido-bambi.blogspot.com*. Biziki pozik naiz aurkezpena jendetsua izan zelako, anitz saldu dut, dendetatik berriro aleak eramán ditzadan deika ari zaizkit... Horrek betetzen nau». •

Jon Garmendia



Iratxe Esnaola
Hezkuntzan doktorea

Burujabetza teknologikoa

Teknologiak garatzen hasi zirenean, 1960 inguruan, burujabetza teknologikoa ez zen aldarrikapen bat, ezta helburu bat ere. Artean, burujabetza teknologikoa berezkoa zen. Teknologia, hasiera-hasieran, eremu akademikoan garatu zen eta, eremu horretan, informazioa eta jakintza partekatzearen kultura erabat errotua zegoen. Horrela soilik ulertzen zen. Oso azkar ordea, teknologien garapena eremu akademikotik harago joan zen, eta partekatzearen kultura galtzen joan zen. Galtzen baino, informazioa eta jakintza ez partekatzeak nolabait abantaila bat suposatzen zuela ulertu zen. Eta software ez irekia, jabetzaren, zabaltzen hasi zen. Testuinguru horretan sortu zen, 1980 hasieran, software librearen aldeko mugimendua, ordura arte berezkoa zena aldarrikapen eta alternatiba gisa planteatzera iritsi zelarik.

Software librearen kontzeptua, burujabetza teknologikoari oso loturik dago. Software libreak erabiltzaileen askata-

suneta eta kontrola bermatzen ditu. Eta hortaz, teknologikoki burujabetza izan nahi duen orok, software librearen eskutik joateko erabakia hartu beharko luke. Baita teknologikoki burujabetza izan nahi duten enpresa, erakunde eta estatuek ere: software libre da euren aplikazio eta programak erabat kontrolatzeko modu bakarra.

Burujabetza teknologikoa, ordea, segurtasun eta kontrol beharretatik harago doa. Burujabetza teknologikoak independentzia esan nahi du. Beste beharrik ez izatea. Burujabetza energetikoak, estatu gisa, energiaren arloan, autogestionatzeko gai izango garela esan nahi duen modu berean. Edota elikadura burujabetzaz ari garenean, buruan dugun independentziaz ari naiz. Burujabetza teknologikoak, herri gisa, gure teknologien jabe eta gure baliabide teknologikoak sortzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, burujabetza teknologikoa ez da borondate politiko soil. Burujabetza teknologikoak gaitasun teknikoak eskatzen ditu. Gara-

tzaileak eskatzen ditu. Eta garatzaileen arteko antolamendua: garatzaileen sarea.

Horretara dator, hain zuzen, azaroaren 17an Tabakaleran egingo den Software & Teknologia Librean III. Euskal Mintegia: teknologia librean euskal garatzaileak elkar ezagutu eta saretzeko saiakera egitera. II. Mintegia, duela 14 urte egin zen, 2002ko azaroan. Eta horrek, aurtengo mintegiari garrantzi are handiagoa ematen dio, urteetan zehar garatzaileen arteko atomizazioa eman izana ulergarria izango bailitzateke.

Mintegia UEUK eta Talaio Kooperatibak antolatu dute, elkarlanean. Bertan, software libreaz gain, beste teknologia libre batzuk ere landuko dituzte: hardware libre, azpiegitura libreak, eta abar. Eta mintegiaren kartelean aipatzen den gisan, burujabetza teknologikoaren bueltan ere arituko dira, garatzaileen eraikuntza lana ezinbestekoa baita burujabetza teknologikoaren bidean. Goizez, tailerrak izango dira. Eta bazkari kolektiboaren ondoren, hitzaldi txiki andana.

Arestian aipatu bezala, teknologiaren garapenaren hastapenetan, burujabetza teknologikoa ez zen aldarrikapen bat, ezta helburu bat ere. Orain ordea, ezinbestekoa da eztabaida hori ematea, eta burujabetza teknologikoaren eztabaidaren garrantzia azpimarratzea, bestelako burujabetza guztien parean. Burujabetza teknologikoak informazioa eta jakintza guztion esku jartzen baititu. Herritarrak ahalduntzen laguntzen du. Eta ekonomia lokala sustatzen du. Finean, burujabetza teknologikoak zentzu soziala du, herri eta jendarte oso baten behar teknologikoak asetzeko azken helburua baitu. Baina modu independentean, autogestionatuan. Eta, herri gisa, horretarako ere prestatu behar gara. •

SOFTWARE & TEKNOLOGIA LIBREAREN III. EUSKAL MINTEGIA

Burujabetza Teknologikorako Bidean

Ezinbestekoa da burujabetza teknologikoaren gaineko eztabaida. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ENRIQUE CALDERON. GARIKANO CALDERON FAMILIA FUNTSA

ZEMENTUA ITZIARTIK ARROARA AIREZ GARRAIATZEKO LANAK

Arroako (Gipuzkoa) ABC enpresak –izenak Alberdi, Bau eta Caso hiru bazkideen inizialak biltzen ditu–, Portland zementua saltzen zuen, Arroa markarekin. Zementu mota hori ekoizteko, 1939an Itziarko Usabiarta harrobia ustiatzen hasi ziren. 1941 ean, harrobiko materiala lantegira errazago garraiatzeko, aireko tranbia bat eraikitzeari ekin zioten, 3.780 metroko distantzia ibiltzeko, eta 1945ean inauguratu zuten. Zenbait langile ageri diren argazkia Enrique Calderon De la Cruz injineru eta argazkizaleak egin zuen 1941 ean. Valentzian jaioa, gaztetatik etorri zen Donostiara bizitzera. Parte hartzen zuen obra guztien argazkiak egiten zituen. Irudiak egiteko, mota guztietako kamerak baliatu zituen, formatu handikoetatik estereoskopikoetara, guztiak ere Ingalaterran fabrikatuak.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

